# ttipi ttarra

305

2001eko ekainak 28 • XXL. urtea

## Zinegile bat Arraiozen

03

Alberto Gorritiberea zumaiarra da berez, baina Arraioz bere «bigarren herria da». Hor idatzi du «Mandoa» pelikularen gidoia eta bertan grabatuko ditu irudiak.

## Behi sektorea krisian

25

Behi sektorearen krisiak eragina izan du Iparraldean nahiz Hegoaldean. Dirulaguntzak molde zuzenean banatuak izan zitezen galdegin du ELB sindikatuak.



## 04 Lan bila etorriak

airea, lurra, ura...

# Lekarozko igerilekua
# Den-dena dauka

Orain, berdegune gehiago, ura arazteko sistema berria, aldagela zaharberrituak, zerbitzu gehiago, ikastaro eta jarduerak, futbol zelaiak, kirol anitzeko pista, eta abar izango duzu eskura.

## Inoiz baino gehiago goza dezazun.

Gobierno de Navarra

Instituto Navarro de Deporte y Juventud

Tratatzeko egune: ekoinak 27

Informazioa eta aliapoak: Damian Guazpen Arrayetxea. Tel.: 948 581 804

## DATUAK...

• Alberto Gorritiberea 31 urteko zumaiarra, pasa den urrian ailegatu zen Arraiozera "Mandoa" filmearen gidoia idazteko asmoz. Pixkanaka herritarrekin harremanetan hasi zen eta gaur egun Arraiozen "bertze kuadrilla" duela aipatzen du.

• "Mandoa" filmea herri euskaldun batean kokatzen da eta errodaia hasten denean extren artean Arraiozkoak izanen dira, "Bohiak" filmean esperientzia hartu zutela dio Albertok.

Alberto GORRITIBEREA *Gidoilaria*

# «Finantziazioa lortzea zaila da, nik momentuz lortu dut»

Rakel Goñi

**Nola ailegatu zinen Arraiozera?**
Lehenagotik Baztan ezagutzen nuen eskotan egunak pasatzera etortzen nintzelako. Gidoia idazten hasi nintzenean giro euskaldun batean finkatu nuen. Baztanera iritsi nintzen lasaitasunaren bila. Elizondon ezagutzen ez nuen emakume batek erran zidan Arraiozko Artxean negua merke pasatzen ahal nuela eta 5 hilabetez egon nintzen bertan. Bizi osorako lagunak egin ditut hemen.

**Nolakoa da "Mandoaren"gidoia?**
Istorioan Euskal Herriko kulturan azken 60 urtetan gertatu denari buruz idatzi dut. Apostuak erreferentzitzat hartu nituen, desafio aunitz egin dira Euskal Herrian. Hainbat jende ezagutzen nuen apostuetan aritua, nire aita, lagunak...eta interesgarria iruditu zitzaidan. "Mandoa" izenburua hartu nuen, gizakiak animalia antzu hauek sortu dituelako, sakrifizioak egiteko. Istorioan zehar mugitzen diren pertsonaia asko ere nahiko antzuak dira, bizian eginen dutena erabakitzen ez dutelako.

**«Ez dut beldurrik nere lehenengo filmea izateagatik, oso ziur nago istorioarekin»**

**Non errodatuko duzu?**
Herri txiki hauek bere enkantoa dute, azkeneko 60 urtetan ez dira gehiegi aldatu. Natura bere baitan gorde dute, hemen ez dituzte pinudirik sartu eta honek laguntzen dit gidoirako. Arraioz eta Ziga aunitz gustatzen zaizkit panoramikari dagokionez, Etxalarko karrikak ere maite ditut. Filmearen plaza agian Gipuzkoan hautatuko dut, apostuendako (idi eta mando probak) adokina behar dudalako. Infernuko Errota dudarik gabe aterako dut leku zoragarria delako. Protagonista eta neska bertan aurkituko dira, bi familia oso ezberdinetakoak izanda errota da lekurik egokiena elkartzeko bi ate dituelako, metafora honekin bere ezberdintasunak azpimarratu nahi ditut.

**Noiz hasiko zara errodaiarekin?**
Urte bat hartuko dut lasaitasunez dena finkatzeko. Nire lehendabiziko filmea izanen da, uste dut 300 milioi inguruko kostua izan dezakela, beraz gauzak oso mantso joanen dira. ez dut beldurrik lehenengoa izateagatik oso ziur nago nire istorioarekin. Finantziazioa lortzea zaila da baina nik momentuz zortea izan dut. Gidoian pertsonai asko daude, bakoitzak bere istorioa du. Peru da protagonista eta ez daki bizian zer eginen duen. Arrazakeriaren gaia tratatzen da, erdaldunak herrietan sartu zirenean gertatu zirenak kontatuz.

**Erran didate galdetzeko ea nolakoak diren Arraiozko gazteak...**
Uff! Nik uste nuen Zumaiakoak ginela juergistenak baina hauek hainbertze edo gehio ere badira. Nirekin arras ongi portatu dira, hemen bertze koadrilla bat daukat eta harro nago. Zumaiara etorri ziren eta herria nahasi zuten, zentzu onean, oso sanoak dira. Eman didaten laguntzagatik milesker Arraiozko herriari eta bereziki Juan Carloseri.

Asier GOGORTZA

# Sortetxetik urrun bizi hobeago baten bila

**Pobreziatik eskapo, gatazka armatuetatik ihesi, orokorrean bizi hobeagoaren bila, euren herrialdea utzi eta gure eskualdera iritsi dira azken urteotan etorkin ugari. Batzuk pozik daude hemen aurkitu dutenarekin, bertzeak diru pixka bat aurreztu eta bere familiarengana laster itzuli nahi dutela aipatzen dute. Bakardadea izaten da nagusi herrietan integratzea lortzen duten arte.**

Rakel GOÑI

Azken urteotan gure herrietara atzerritar ugari etorri da bere herrialdeetan dagoen egoera ekonomiko larritik ihes eginez. Askok familia han utzi dute, bertzeak hemen gelditu nahi dutenak, pixkanaka familia ekartzeko gogoa dute: *«gure semea abuztuan ekartzen utziko digutela uste dut. Ehundaka paper eskatu dikigute Ukrainan haurra herrialdetik ez ateratzeko, bazekitelako ez ginela itzuliko, baina azkenean ekarriko dugula uste dut»* aipatzen du Leon Chevanenkok Beran dagoen ukrainarrak.

Datu aipagarria da etorkinei esker eskualdeko demografia mantendu dela eta herri aunitzetan biztanleriak gora egin duela. Eskualdeko herrietan bataz besteko adina gero eta handiagoa da, bertzalde gero eta ume guttiago jaiotzen dira inguruetan, beraz dudarik ez dago gure herrietan jendearen beharra dagoela.

### Etorkinen lanbideak eskualdean

Etxeko lanetan, eraikuntzan eta ostalaritzan aurkitzen dute lana eskualdera datozenak, argi dago hori ez dela beraien ametsa eta askok argi erraten dute, bulego batean 200.000 pezetaren truke lan egitera heldu zirela uste zutela. Bidai luze hauetan askotan gezurra ere tarteko da, *«hemen diru pila bat irabaziko nuela eman zidaten hemen zeuden ekuadortarrek, ez zidatena aipatu zen hemen dirua aurrezteko etxetik atera gabe egon behar duzula, bizia hemen oso garestia delako»* zehazten du Laura

# Leon eta Natalia CHEVANENKO

Leon eta natalia Chevanenko duela 3 hilabete iritsi ziren Bera. Ukrainan Berdichev hirian bizi ziren Chernobildik hurbil dagoen herrian. Lagunek eta familikoek Euskal Herrira etortzeko laguntza eskatzen diete, baina beraiek ez dute gauza handirik egiten ahal.

**ZERGATIK JOAN ZINETEN UKRAINATIK?**

Han lana bada baina arras gaizki ordaindua dago. Sobietar Batasuna esistitzen zenean nahiko ongi bizi ginen, handik ateratzea ezinezkoa bazen ere. Baina banaketa egin zenean herrialdearen egoera ekonomikoa izugarri okertu zen. Gainera orain boterean korrupzio handia dago eta mafiek kontrolatzen dute herrialdea. Urte aunitz pasako dira egoera bere onera itzuli arte.

**DUELA 8 URTE IRITSI ZINEN ESPAINIARA, ZERTAN IBILI ZARA LANEAN?**

Lehenik, hizkuntza ikasteko zirkoan lan egin nuen, geroago Benidormen jatetxe batean lan egin nuen. Ondotik Nafarroako hegoaldera iritsi nintzen fruta biltzera eta kontserba lantegietan lan egiteko. Orain Beran nago Miarritzen eliza Ortodoxoa dagoelako eta handik hurbil garelako. Hemen bizitzera gelditu garela uste dugu, nire emaztea oraindik ez da ohituratu, baina moldatuko da. Orain mendian lan egiten dut eta oso pozik nago. Beroa egiten duenean gogorra da, baina bestela, neguan ongi gaude. Nire emaztea Natalia margolaria da eta enkarguz koadroak egiten ditu, bitartean gaztelania ikasten ari da ezer jakin gabe etorri zelako. Bertzalde ni 6 urtez egon nintzen paperik gabe baina ez zen arazorik. Dena den azken hiru urteetan Ekuadoretik jende ugari etorri da eta egoera gogortu da. Orain paperak baditut herrialdean aspalditik nengoela frogatu nuelako.

**BERAKO JENDEA EZAGUTZEKO AUKERA IZAN DUZUE?**

Honat iritsi nintzenean erresidentziako mojek eta Martinek asko lagundu zidaten, batez ere bizitzeko tokia aurkitzen. Herriko jendea hagitz ongi portatu da gurekin. Guk ez dugu somatu, erraten den arrazismo hori. Beran gustora bizi gara eta ez dut uste Ukrainara itzuliko garenik.

# Laura CHARFUELÁN eta Dani GUERRERO

Gartzaingo elizaren ondoan etxe batean bizi dira Laura Charfuelán, bere semea Dani Guerrero eta honen neskalaguna Maria Dolores Inga. Laura duela 2 urte etorri zen Ekuadorretik eta han senarra eta bi seme utzi zituen.

**NOIZ ETORRI ZINETEN?**

(Laura) Duela bi urte, engainatua etorri nintzen, jadanik hemen zeuden ekuadortarrek erran zidaten diru asko irabaziizitekeela Espainian eta bidaia egitea erabaki nuen. Zortzi hilabeteko lanarekin ordaindu nuen hegazkin txartela. Hemen dirua irabazten dela ez dut ukatuko, baina horretarako pisu berean 14 edo 16 pertsona bizi behar dira, dirua ez gastatzeko handik atera gabe, hori ez da komodidadea.

**POZIK AL ZAUDETE HEMEN BIZITZEN?**

Bakarrik sentitzen gara familia oso urrun dagoelako, diru pixka bat bildu eta itzuli nahiko genuke. Lanari dagokionez, ardiekin lan egiten dugu, jeizten, bazkatzen...ez genuen behin ere hau egin baina moldatu egin gara eta kontent gaude. Herriko jendeak oso ongi tratatu gaitu gure bakardadea ulertzen duelako eta aurrera ateratzen lagundu digute, gurekin ongi portatu dira.

**NOLAKOA DA ZUEN EGOERA LEGALA?**

Paperarik gabe egon gara bi urte hauek baina orain, legedi berriak dioen arabera, urtarrilaren 28a baino lehen etorri garenak egoera legalizatzeko aukera izanen dugu. Gure nagusiarekin begiratzen ari gara egoera aldatzeko. Alde horretatik pozik gaude laster paperak eginen ditugulako.

Orain hiru ekuadortar dira Gartzainen, laster laugarrena iritsiko da. Maria Ingak alabatxoa izan behar du eta aski pozgarria izanen da etxekoentzat. Zorionak beraz sortuko den neskatxarengatik.

Charfuelán ekuadortarrak. Atzerritar asko dator gure herrietara bere biziko ametsak betetzeko asmoz eta honat iristen direnean zoritxarroz, errealitatea ez dela hasieran uste zutena konturatzen dira.

**ARRAZAKERIAREN GAIA**

Orokorrean etorkinekin ez da arazorik izan, arrazakeria dela eta ez dela. Baina kontuan hartu behar da Espainiako hegoaldean etorkinen kopurua askoz handiagoa dela eta egoera arras desberdina dela gurearekin alderatuz. TTIPI-TTAPAK elkarrizketatu dituenen artean denek diote hemengo jendeak aunitz lagundu diela eta inork ez diela muzin egin. Baina horrek ez du erran nahi hemen arrazakeria ez dagoenik.

Lanik neketsuenak egiteko jenderik ez dago, gutti ordaintzen diren lanak ere hutsik gelditzen dira eta lanpostu horiek bete behar dira. Etorkinak iristen hasi zirenean, herriko albistea bihurtu ziren: *«aizu, badakizu hunen etxean atzerritar bat badela?»*, orain albistea gauza arrunta bihurtzen ari da.

Etorkinen kolektiboak arazo ezberdinak ditu, etxebizitzarena izanen litzateke aipagarriena. Bertakoei pisua alokatzeko aurkitzea zaila bazaie, pentsa atzerritar bati, askotan mesfidantza tarteko bada.

Aunitzeri ahaztu zaigu euskaldunak pasa den mendean mundu osoko herrialdeetara joan behar izan zutela etorkin moduan.

**SORTERRIRA ITZULIA**

Batzuk argi dute eskualdean geldituko direla betiko, baina gehienen ametsa euren herrialdeetara diru pixka bat sakeletan dutela itzultzea da. *«Bisitan bakarrik itzuliko nintzateke Gartzainera. Dirua lortzen badut Ekuadorrera joanen naiz»* dio Laurak.

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa (+34) 948 63 11 88
Faxa (+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com/ttipi-ttapa**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkan, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Gofi. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Estefan Arotzena, Juana Mari Saizar, Koldo Klaber, Iban Iraizi, Patxi Iriarte, Jakone Olxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Bernat, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olaizola, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Gofi.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa.
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Bartan, Urdazubi eta Sunbilko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea.

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 2.400 Pta. |
| Ipar Euskal Herria | 180 Libera |
| Europa | 4.600 Pta |
| Amerika | 16.500 Pta |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**





• GAURKOTASUNEKO GAIA •

# Behi sektorearen krisia

## ELBk behi hazkuntzaren krisiagatik dirulaguntzak molde berdinez banatzea nahi du

**Maritxu LOPEPE** *ELB sindikatuak*

ELB (Euskal Laborarien Batasuna) sindikatuak behi krisiarengatik eman dirulaguntzak, molde zenez banatuak izan zitezen galdegiten zuen soilik. Behikien salmenta izugarri jautsi da eta laboriek galera handiak izan dituzte. Kontsumitzaileek beldurra dute eta ez dute behikirik erosten. Laborarien egoera larria da eta horregatik mobilizazioak egitea erabaki genuen. Erran dezakegu herrituak gelditu direla laborari gehienak, Baionan egin mobilizazioaren ondotik, Frantses administrazioak polizia bidali, istiluak sortu eta laborariak atxilotu dituelako. Bospasei ekintza burutu ditu ja danik ELBk behi hazkuntzaren krisiagatik, dirulaguntzak molde berdinez banatzea nahi dugu. Baina, antza denez, gure ahotsa ahal den bezala ixildu nahi dute.

Duela gutti Pirinio Atlantikoko laborantxa agintariek eta administrazioak erabaki dute zezenga gizentzaileak dirulaguntza azkarragoak jasoko dituztela aratxe gazte ekoizleak baino. Lehen produzio sistima Biamoan kokatzen da eta bigarrena, ordea, gehienik Euskal Herrian. Horregatik Euskal Herriko laborariek ihardokitze ozenenak sortu dituzte, halere mobilizazioak beti baketsuak izan dira.

Baionako istiluen ondotik laborariak etsituak agertu dira, duela zenbait aste Pirinio Atlantikoko prefeta Euskal Herriko baserri batera joan eta onartu zuen, maiz hartzen zituzten erabakiak ez zirela Euskal Herriko laborarien aldekoak. Ondorioz, agintariaren arabera, oreka mantentzen saiatuko zirela aipatu zuen, baina askoren ustez gaur egun argi da gezurra baizik ez zela.

Laborariek Baionako autobidea trabatu zutenean administrazioa negoziatzera behartu nahi zuten. Baina erantzuna laster etorri zen. Poliziak bortizki kanporatu zituen eta hiru kide atxilotuak izan ziren. Hiruak aske gelditu ziren zenbait orduren buruan, baina irailean bat auzitan pasako da.

## Eskakizunak zuzenak dira: behi hazleak egoera larrian daude

**Eric DOLOSOR** *Laboraria*

Baionako mobilizazioa ez zen antolatzen ginuen lehena. Behien krisiagatik jadanik bost edo sei burutuak genituen. Beti lasaiki eraman ditugu, bortizkeriarik gabe eta solasbideak jorratuz. Frantses administrazioak badaki ez dugula kalterik eragiten. Horregatik poliziak ukan duen jarrera ezin ulertua zen gehienentzat. Gainera eskakizunak zuzenak dira: behi hazleak egoera larrian dira eta departamenduko agintarien erantzunak ez dira batere egokiak. Gutunak, bilkurak eta telefonoa ez dira aski. Administrazioak osoki ukatu ditu gure galderak. Karrikara jaistea da gure boza entzunarazteko modu bakarra. Istiluen ondotik hiru laborari atxilotu zituzten. Gauzak oso laster iragan ziren. Bapatean hamarnaka polizi ikusi genituen etortzen bonba lakrimogenoak botatzen. Konfrontaziorik nahi ez genuenez lekutu ginen baina irudiz, poliziarentzat ez zen aski eta traktore baten barnean bi fumigeno jarri zituzten, gidaria lurrera bota eta jo zuten. Bertze bik kolpeak jaso zituzten eta hiruak atxilotuak izan ziren. Bat auzitan pasako da irailean.

## Ez dute inoiz ordaintzen animaliak egitan balio duena

**Jabier MINDEGIA** *Abeltzaina*

Behi batek EBB eritasuna zuela ikusi zutenean animalia guztiak hil behar zituztela erran zioten. Ez nuen izan inolako aukerarik, legeak zioena bete zuten eta nireak ziren 41 behi eta 98 ardi akabatu zituzten. Analisiak egin zituztenean eritasunik ez zutela ikusi zuten. Orain dik ez dut dirulaguntzarik jaso eta beti ere ez dut aziendek zuten balioa hartuko. Baremo bat dago eta horri segituz ez dute inoiz ordaintzen animaliak egitan balio duena. Pentsatzen dut hilabetea akitzen denerako laguntzak emanen dizkidatela, baina ez da izanen aski lehenago bezala aziendak izateko. Bertzalde, ez da inor etorri ri deus ere erratera, ez dira gutaz preokupatu. Etxetik kanpo lan egitea erabaki dut. Ardi batzuk erosi baditut ere, momentuz ez naiz abeltzaintzan berriz arituko, ez baitut gogo handirik. Legea aldatu beharko zuten, behi eroren bat ateratzen bada baserri hortako animalia guziak ez hiltzeko. Nire jendeak bururik ez beheitzeko erran dit, animo aunitz eman didate eta eskertu behar dut, baina halere inork ez daki zer pastu dudan.

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Aresoko Udala eta informazioa jasotzeko eskubidea

Nafarroako Auzitegi Nagusiak duen Administrazioarekiko Auzien Sailaren ebazpenaren ondorioz, Josepa Onsalo alkateak egin duen bidegabekeria baliorik gabe geldituta. Alkateak, azkeneko hilabeteotan, informazio publikoa jasotzeko eskubidea ukatu dio behin eta berriz Euskal Herritarrok udal taldeari. Era horretan, gai eta auzi publikoetan parte hartzeko eskubidea eta informazioa behar bezala jasotzeko eskubidea ukatu dio gure taldeari, eta kendu egin du murriztu digu udalaren lanari ekarpenak edo iritzak egiteko ahalmena eta, aldi berean, gure herri osoari informazio garden eta garbia emateko ahalmena.

2001eko maiatzaren 7ko Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai honek, Aresoko Udala gidatzen duen taldeak proposatutako Ordenantzaren 10. artikulua ere baliorik gabe uzten du. Ordenantza hau, «Zinegotziek eta herritarrek kontsulta egin eta informazioa jasotzeko duten eskubidea arautzen duena», murriztailea izateaz gain, aipatutako 10. artikulu horretan, lehen azaldu dugun bidegabekeria lege bihurtzen saiatu da. Alkateak eta bere zinegotziek, Legeak aitortzen ez dizkien ahalmenak eskuratu nahi zituzten dokumentu eta agirien informazioaren kontrolaren gainean. Honela, EHk eskatzen duen informazioa behin eta berriz ukatu ahalko zuten. Legea eta 2001/5/7ko epaia argiak dira oso: «Zinegotziek, Udaleko agiri guztien inguruko informazioa eskatu eta eskura dezakete».

Batzorde informatzailerik ez dago, udal-batzarrak legeak ematen duen epearen mugan egiten dira (3 hilabete). Horretaz gainera, zinegotziek idazkaritzan dauden informazio eta espedienteak jasotzeko aukerarik ez izatea ezin da onartu.

Areson oinarrizko Eskubide Demokratiko bat berreskuratu da eta, hori dela eta, EHk bere poza adierazi nahi du eta baita Aresoko herri osoari zorionak eman ere, aurrerantzean udalean egiten denari buruzko informazioa herrian hedatzeko are gehiago konprometituz. Espero dezagun epai honek Alkateari eta bere taldeari hausnarketaren bat eragitea eta aurrerantzean herriaren interesak hobeki bideratzen ahalegindu daitezela, besteak beste, Udala ia dirurik gabe uzteaz gainera, denok ezagutzen ditugun eta inolaz ere beharrezkoak ez diren obrak egiten dirutzarik gastatu gabe, eta herriak informazioa egoki jasotzeko duen legezko eskubide ukatzen jarraitu gabe.

**Euskal Herritarrok**
**Udal taldea.**

## Hiruak Bat elkartearen oharra

2001eko maiatzaren 23an Bertizko Partzuergoak egindako Batzar Orokorraren ondotik, «Hiruak Bat» Etxe Ruralen Elkarteko Juntak, erabaki zuen maiatzaren 25ean biltzea Batzar horretan tratatutakoa aztertzeko.

Uste dugu giro txarra sortu dela eta argi eta garbi utzi nahi dugu ez dela gure Juntarengatik izan, horregatik idatziz adierazi nahi dizuegu:

Lehenbizitik gure asmoa izan da argi eta garbi jakitea kontuen egoera eta Gerentearen soldataren igoeraren zergatia, horretarako egin genuen bilera bat pertsona horrekin, gehien bat pertsona horrekiko errespetoagatik. Gerenteak eman zigun informazioa ez da garbi geldítzen, ondoren Etxe Ruralen Elkarteko Batzarrari komunikatu genion, Elkarteko kideek eskatu ziguten lehenik bertze elkarteko lehendakariekin eta gero Partzuergoko lehendakariarekin solasteko. Bi bilera hauek egin ondoren gure zalantzak berdinak edo gehiago izaten jarraitzen dute. Horregatik gure jarrera mantentzen dugu eta adierazten dugu:

1.- Partzuergoa elkarte guzien elkartea dela eta horregatik defendatuko dugula, segurtasuna eta argitasuna transmititzen badigu.

2.- Prest gaude sortutako diru zorrari «Plan de Amortización» hori ordaintzeko, bakarrik eskatzen dugu Partzuergoko «Plan de viabilidad» bat eta kontuak argitzeko.

3.- Lehendakaria «Hiruak Bat» Etxe Ruralen elkarteko ordezkari bat da eta ez du bere burua ordezkatzen, horregatik ez dugu onartzen Batzarran eman zitzaion tratua, erran daiteke tamalgarria eta lotsagarria izan zela.

**Kontxu Aguerrebere,**
**Luisa Tomasena,**
**Mirentxu Goienetxe,**
**Arantxa Rozas, Itxaso**
**Arretxea, Pakita Inda,**
**Rakel Ariztegi.**

## Azkaingo uholdeak

Hemezortzi urte pasatu ziren uholderik gabe bainan, maiatzaren 5ean, larunbatarekin, herriko biztanleok beldur handi bat ezagutu dugu, denak orroitzen ginelako 11 biztanle hil zirela 1983ko uholdeengatik.

Larunbat gauean euri ainitz aritu zen, ura Larrunetik etorri zen bereziki. Orduan, Urertsi, Senperen eta Azkainen artean ateratu zen bere oheatik. Azkainen, portua eta inguruko etxe batzuk urean izan dira. Zorionez, mina baino beldur gehiago ukan dugu.

**Aude Camille Denisty,**
**Antoine Cognaud**
**eta Romain Etxeberri.**
**IKAS-Biko 3 ikasle.**

BULDAIN
agentzia inmobiliarioa
Garaje, pisu, etxe, lokal komertzialak...
Amezabel 37 (eskola ondoan)
LEITZA (Nafarroa)
948 510534 / 649 476615

ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzee eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

# MUEBLES METS


**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin kurrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*


*Larunbat arratsaldetan irekia*

**4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko**

**Sukaldeak**
**Egongelak**
**Logelak**
**Bainugelak**

# Euskarazko literatura lanak sarituak

## Leitza, Goizueta, Bera, Arantza eta Lekarozko ikasleen zerrenda

Nafarroako Gobernuak antolatu euskal literatura lehiaketan inguruko gaztetxoek sari ugari lortu dituzte. Hona hemen guztien izenak:

LH 3. zikloa, ipuina modalitatea, 3. saria Leitzako Goretti Galainena Lana "Gaueko erregea". Narratiban, 2.a Berako Ainhoa Prieto, "Internauko medikuarekin". 3.a Berako Ion Irazoki, "Jao eta Dragoiak" lanarekin.

BH 1. zikloa, ipuinetan 3. saria Arantzako Beñat Mitxelena, "Kontrabandoarekin". Narratiban, 1go saria Goizuetako Maider Etxebeniaren "Karta bat espetxetik" lanarentzat. 2.a Elizondoko Aia Cabodevilla, "Eguzkiaren lurraldearekin". 3. saria Amagoia Cabodevillaren "Kukumet" lanarentzat.

BH 2. zikloa, ipuinetan 1go saria Elizondoko Iosune Bertizentzat "Denak eroturik" lanarengatik. Narratiban lehen saria Lesakako Miren Rubiorentzat "Txantxangorri luma lanarengatik.

"Pedro Diez de Ultzurrun Etxarte" deklamazio saria: LH 2. zikloa, 1. saria Berako "Ricardi Baroja" eskolako "Deabruak" taldearentzat. 2. saria Leitzako EPko "Loiategi" taldearentzat. Dialektologia-etnologia lehiaketan,

DBH 1 zikloa, 1. saria Arantzako Imanol Lukanbio eta Xabier Iturria "1936 gerra zibila" lanarengatik, 2. saria Arantzako Irune Taberna eta Eneko Ordoki "Berako minatan" lanarengatik. 3. saria Arantzako Beñat Mitxelena eta Aintzane Pikabea "Oihaneko lanak" idazlanarengatik.

DBH 2. zikloa, 1. saria Berako Iñigo Zelaieta "Ipuinak" lanarekin. 2. saria Goizuetako Itsaso Lujanbio "Gazte denborako gauzarengatik". 3. saria Leitzako Joanes Lizarragak eraman du. Sari banaketa ekainaren 26an egin zen Iruñean. Zorionak hanbeste sariengatik.

# Arrosa, Euskal Herriko Irratien topagunea

## Uztailaren 1ean zuzeneko-emanaldia egin nahi da

Arrosan, Baxe Nafarroan, Euskal Herria Zuzenean festibalaren baitan irratien topagune bat antolatu dute Irulegi Irratiak, Xiberoko Botzak eta Gure Irratiak. Bertan Euskal Herriko Irratiak biltzea da helburua elkarren arteko harremanak eta ekimenak bultzatzeko.

Apirilaren 8an jadanik 31 irratik bat egin zuten KORRIKAri buruzko programa bateratu bat egiteko. Esperientzia hori oso aberasgarria izan zenez Euskal Irratiek bertze topagunea antolatu dute. Ekitaldiak ekainaren 30ean hasiko dira. Uztailaren 1ean 30 irratitan zuzenean emanaldia eginen da 13.15etatik 14ak arte. Gaitzat Euskal Herria Zuzenean festibala hartuko da. 20.000 pertsona urtero biltzen baditu ere Hego Euskal Herrian bertan ezezaguna delako. Elkarlana ezetetea nahi dute antolatzaileek emanaldiak aberasgarriak izateko.

ARTXIBOA

**Mari Karmen Irungarai Xorroxingo estudioan Elizondon.**

## Zinema Elizondon

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura departamenduak zine emanaldia antolatu du Elizondon. Sei filme ikusteko aukera izanen da, horien artean bat euskaraz.

Ekainaren 26an "102 dalmatas" ikusteko aukera izan zen. Ekainaren 28an "Mision imposible" izanen da. Uztailaren 3an "Stuart Little", uztailaren 5ean "Auzoko animaliak" (euskarazko filmea), uztailaren 10 ean eta uzailaren 12an "Asterix y Obelix contra Cesar". Filme guztiak Elizondoko merkatuko plazan emanen dira gaueko 10.30etan. Gaueko ordutegia hartzen da iluntasuna probexteko asmoz eta irudiak hobe ikusteko.

Aurreko urteetan bezala aurten ere aulkia eramatea gomendatzen da jende gehiego biltzen bada jarrita egoteko.

Haritza
belardenda
Mediku naturista
kontsultra
Masajista
Legia I, behea • BERA • ✆ 948 630652

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRIA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
EBROTTUAK
PUBLIZITATEA
Extegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Alberto
RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Extegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

BERA

# Labiagako Ttipittarriak taldeak irabazi du Haur Kantari Txapelketa

Hernanin jokatu zen Euskal Herriko finala,120 kantariren artean

Asier GOGORTZA

Nafarroako finalean txapeldun atera ondotik Euskal Herriko txapelketan ere irabazle suertatu dira Labiaga ikastolako kantariak, hain zuzen ere ttikien sailean. Begoña Rudi andereñoa izan da taldeko zuzendaria, eta kantariak, berriz, ondoko hauek: Nerea Anzizar, Patxi Castillo, Aitziber Esnaola, Ekaitz Etxeberria, Joseba Garmendia, Jon Iturria, Maddalen Jimenez, Julen La Torre, Nerea Leiza, Ane Prieto, Gorka Tolosa eta Ainara Velez. Zorionak!

Gukurtzi

Ikasle-ohi batzuk musika tresnak jo zituzten kantariei laguntzeko.

## Suhiltzaileak

### Diplomak eman dizkiete Berako 22 suhiltzaile boluntariori

Martxoaren 31tik ekainaren 16ra luzatu den ikastaro batean parte hartu dute 22 boluntario beratarrek. Kurtso hori Oronozko suhiltzaile profesionalek eman dute gehienbat.

Ikastaroko parteharzaileek suhiltzaile lanak egiteko guttieneko ezagupenak eta jarrerak ikasi dituzte. Hauek dira ikastaroa egin duten suhiltzaile boluntarioak: Jesus Agirre, Iban De Prado, Jesus Antonio Diez, Miguel Angel Diez, Mikel Egues, Ander Errandonea, Jesus Manuel Gallego, Argimiro Garcia, Francisco Garcia, Joseba Goia, Mikel Irigoien, Eloy ordoki, Jose Antonio Olartzabal, Mikel Rojo, Xanti Susperregi, Joseba Susperregi, Josu Unsion, Santiago Urtxegi, Jose Mari Villamea, Josu Zelaieta, Gaizka Maritxalar eta Mattin Leitza.

## FLASH

### Igeriketa ikastaroak

Uztailaren 2an hasiko dira igeriketa ikastaroak. Izena emanahiduenak kiroldegira joberharko du egun horibeno lehen. 4 urtetik gorako haurrek 4.500 pezeta ordaindu beharko dute, eta nagusiek berriz 5.000. Goiz eta arratsaldez izanendira saioak.

### Fernando Etxegarai

Iparraldeko Jokoen lehen jardunaldian kirkor-biltzen txapeldun atera zen beratarra Etxauriko plazan jokatu zen herri kirol saiohori.

### Eztegara frontoia berritzen ari dira

Eztegara frontoianmodaketa lanak egiten ari dira egunotan. Frontisean marmolezko losak jarriko dituzte eta ezker pareta eta gibeleko pareta ere moldatuko dute bidenabar. Beraka bestetarako akaustia egonen da obra.

### Ehiza eta arrantza elkarteak 50 urte egin ditu

Aurten 50 urte bete dira Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea sortu zela. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egiten ari dira bazkideak, eta uztailaren 22an bazkari herrikoa eginen dute Zalain jatetxean.

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Alzate, 5 • ✆ 948630080 BERA

Zure inguruan klase guztietako insektoz (xomorro, zimaxme, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-kaputxoz gertatu nahi baduzu, deitu gu ardoratuko gara horretaz.
Termita eta Poillen kontrako tratamenduak
BERA DESINFECCIONES
✆ 948630155
BERA

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

# Txoznetan ere besta giro ederra izanen da Sanferminetan

## Igandean, herri poteoa eginen da La Tuna Electrica taldearekin

Aitor AROTZENA

Urtero bezala, uztailaren 6ko txupinazoarekin hasiko diren bestetan egitarau ofizialaren barnean aldizkari honekin batera jaso duzuen erdi-gehigarrian izanen duzue. Baina, azken urteetan bezala, txoznetan ere ekitaldi ezberdinak antolatuko dira. Txoznen Batzordeak antolatuta. Ortzialean, arratsaldeko 6etan irekiko dira txoznak eta arratseko 9etan, euskal preso eta errefuxiatuak ekarri lemapean Amnistiaren Aldeko Baztordeak antolatutako manifestazioa abiatuko da txoznetatik.

Igandean, arratseko 9etan hasiko da herri poteoa, La Tuna Electrica taldearen laguntzarekin. Astelehenean, karrika animazioa izanen da eta asteartean, bestetako azken eguna denez, gauerditik aitzinera barra librea izanen da, kupelak hustu arte.

Bertzalde, Sanferminen aurrerapen gisa kirol ekitaldiz betetako asteburua izanen dugu. Larunbat goiz honetan, ekainak 30, Arkupe eskolako finalak jokatuko dira. Arratsaldeko 5etan, Arkupe elkarteak antolatutako emakumezko paleta goma txapelketaren eta gizonezko palaren motzaren finalak jokatuko dira eta 7etan, Bortzirietako futbito txapelketaren finala eta hirugarren posturako lehia jokatuko dira.

Aitor

**60 urte bete dituzte esposturik Vicente Otxoteko eta Mª Josefa Ordokik eta Modesto Eneterreaga eta Maialen Irigoienek. Guillermo Agara-Mª Concepcion Esparza, Fidel Aranburu-Encarnacion Altzugarai, Santiago Telletxea-Francisca Ordoki eta Santiago Zapirain-Avelina Altzugarai bikoteek berriz 50 urte egin dituzte espostuta. Nafarroako Kutxaren Urrezko Adina elkartearen omenaldia jaso zuten ekainaren 15ean.**

## Pilota

### *Herriko pilotari gaztetxoak ez dira Udaberriko Sariaren finalean sartu*

Txapelketa ederra egin badute ere, finalerdietan Igantziren kontra galdu egin zuten Justo Agirretxek prestatzen dituen pilotari gaztetxoek. Belate elkarteak antolatutako Udaberriko Sarian, beraien multzoko lehenak izan ziren, baina finalerdietan hobeak izan ziren igantzarrak. Benjaminetan, Igantzin nahiz Lesakan galdu egin zuten Beñat Oronoz eta Ander Olaizolak. Alebinetan ere ez zuten garaipenik lortu Imanol Arozamena eta Lander Arriolak. Infantiletan bai, Igantzin eta Lesakan irabazle suertatu ziren Jon Olaizola eta Xabi Maritxalar.

Finalera ez da ailegatu, baina herriko pilota eskola lan ederra egiten ari da.

Aitor

## FLASH

### *Miguel Elizalde Memoriala*

Iñigo Sagastibeltza Urtxintxa-Aptiva taldeko leitzarrak irabazi zuen ekainaren 16an Basurde elkarteak antolatutako Miguel Elizalde Memoriala. Gisa honetara, Nafarroako junior mailako txapelketa ere irabazi zuen Leitzako txirrindulariak. Probak 75 km.ko ibilbidea zuen eta 59 txirrindularik hartu zuen parte. Sagastibeltza bakarrik heldu zen helmugara, bi ordu eta 5 segunduko denborarekin. 48 segundura, taldekide eta herrikide den Jose Mari Sestorain sailkatu zen bigarren postuan eta denbora berean sartu zen Bi-Lux taldeko Aritz Lorea.

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

Xirgil
Alzate 1 • BERA
948 631462

ETXALAR

# Berako Pedro Telletxearen gasna gailen IX. Gasna Feria Egunean

## Bigarren postuan Basateko Bordako Isidro Ariztegi gelditu zen

**Joseba eta Nerea**

Ekainaren 10ean pasatu zen Gasna Feria eguna. Goizean eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, arratsaldean eguzkia ateri zen. Goizean herriko nahiz kanpoko jende ugari bildu zen artisauen postuak ikustera. Segidan, gasna-sariketa egin zen. Lehiaketaren irabazlea Berako Pedro Telletxea izan zen. Bigarren saria Etxalarko Basateko bordako Isidro Ariztegik eraman zuen eta hirugarrena iazko irabazlea izan zen: Elbeteko Mertxe San Vicente. Etxalarko gasnagileei dagokienez, Beheko Zubiko Juana Mari Arburuaren gasnak irabazi zuen lehenbiziko saria eta bigarrena Irigoieneko Bordako Isabel Iratzokik bigarren urtez segidan.

Manolo Arozena epaimahaikidearen hitzetan: *«Joan den urtean baino gazta hobeak dira aurten. Iaz ez genuen espero bezalako emaitzarik lortu, baina aurten gustora gelditu gara».*

JOSEBA OLAGARAI

**Ekainaren 17an Landagain eskolako haurrek beraien eguna ospatu zuten. Goizean jende mordoa bildu zen haurrek urte guzian eginiko lanak ikustera. Bazkaldu ondotik, Collins Clown pailazoen saioa izan zen. Argazkian ikus daitekeen bezala, jende andana hurbildu zen aktuazioa ikustera.**

### Udaleku irekiak

Duela hiru urte Etxalarko "Ipurtargi Aisialdi Taldeak" udaleku irekiak antolatu zituen lehen aldiz. Iazko uda arte segitu bazuten ere, hutsune bat izan zen 2000ko udan. Hori dela eta, aurtengoan Joseba Olagaraik eta Nerea Mitxeltorenak antzinera ateri dituzte. Ekainaren 25ean hasi ziren, 5 astez (uztailaren 27 arte) luzatuko diren udalekuak. 32 haurrek eman dute izena aurtengo uda Ipurtargi Aisialdi Taldearekin pasatzeko.

### Udal langileen kontratazioa

Udalak Nafarroako Gobernuari langabetuak kontratatzeko 5.023.748 pezetako dirulaguntza eskatu dio. Gobernuak emandako dirulaguntza 1.911.000koa izan da. Honekin, udalak 3 hilabeterako 7 langile kontratatzeko aukera izanen du. Udalak tramitatu duen enplegu-eskaintzan 5 langile aurkeztu ziren, baina lana eskatu zutenak 2 bakarrik: Jose Luis Agesta eta Aitor Santesteban.

## FLASH

### Andres Iñigoren hitzaldia

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, euskarak Nafarroan duen egoeraren inguruan hainbat hitzaldi antolatu zituen. Horietako bat Etxalarko Udaletxean izan zen ekainaren. Andres Iñigo euskaltzainak ordu bat eta erdi iraun zuen hitzaldi interesgarria eskaini zien bildutako 25 lagunei.

### Kurtso bukaerako eskurtsioa

Landagain eskolako ikasleak kurtso bukaera ospatzeko, ekainaren 21ean, asteazkena, Etxalarko Santa Kurtz ermitara joan ziren eskurtsioz. Goizean goiz abiatu ziren urritzokieta auzo aldera, bertan ermita ikusi eta gero Beheko Etxeko igerilekuan goiza pasatzeko. Bertan, hainbat joku eta jolasetan ibili ziren. Eskolak gosaria eman zien joandako haur guziei.

HARITZPE JATETXEA
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK
Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
• Diabetis • Asma • Buruko mina • Olnen izerdia
• Larru azaleko alergia • Zitareak • Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismos
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bixkortzea
• Artritis, erreuma
• Artrosis, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab...
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu
✆ (943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzel pentsuak egiteko
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
✆ 948635290
ETXALAR

IGANTZI

# Akautu da 2000-2001 ikasturtea, kezka eta zalantza aunitzekin

## Heldu den igandean jokatuko dira Udaberriko txapelketaren finalak

Jolone SEIN

Joan den astean akautu zen 2000-2001 ikasturtea. Akabila nahasi samarra izan duela erran behar gainera. Nafarroako Gobernuak eskoletan euskararekin egin nahi duena dela medio. Guraso eta irakasleek erne egon beharko badute ere, haurrak dagoeneko ongi merezitako udako atsedenaldian murgilduta daude. Irailean eskolara itzultzen direnean aurpegi berri aunitz aurkituko dute, irakasle batzuk ikasturte bakar batako etorriak zirelako. Ana Erasunek, 6 urte Igantzin eman ondotik, bertze eskola batean etapa berri bati ekin nahi izan diolako. Ez da erraza izanen aurtengoa bezalako taldea osatzea.

Oskar TXOPERENA

**San Juan Xarreko besta ospatu zen joan den igandean, eta, ohiturari jarraituz, uztaileko igande guzietako meza nagusia bertan izanen da.**

### *Urrezko ezteiak*

Ekainaren 16an ospatu zituzten Antonio Lizardi eta Mª Paz Trantxe Txopeneakoek urrezko ezteiak familiarekin. 1951eko maiatzaren 30ean ezkondu ziren Igantzin eta geroztik herriari lotutako bizitza eraman dute, bai La Villa jatetxearen ardura euren eskutan izan zuten garaian eta baita ondotik ere.

## FLASH

### *Pala Txapelketa*

Frontenisekoa akautu bezain abudo, Pala Txapelketarekin hasi dira Igantziko Biltokikoek. 12 bikotek eman dute izena eta abuztuaren 4an jokatuko diren finaletan jakinen dugu Josetxo Txoperena eta Imanol Telletxearen lekukoa zeintzuk hartu duten.

### *Udaberriko Txapelketa*

Heldu den igandean, uztailaren 1ean, Udaberriko Txapelketaren B taldeko finalak jokatuko ditu Igantziko Biltokiko pilota taldeak. Iruñeko zein pilotalekutan eta zer ordutan jokatuko den zehaztu gabe baldin badago ere, arerioa Araitz-Beteluko taldea izanen dela badakigu.

### *Hitzaldia*

Ekainaren 11n parrokiko zentroan Andres Iñigok emandako hitzaldira 28 lagun hurbildu ziren. Euskarak Nafarroan egin duen bidea eta Nafarroako Gobernuak euskararekiko azken bolada honetan izan duen jarrera aztertu zituen. Nahiz eta kezkatzeko kontuak izan, jendea gustora atera zen hartutako infromazioaz. Orain uztailaren 5ean Beran eginen den bilkura prestatzen ari da Euskara Batzordea.

MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
✆ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkalaga Industrialdea • BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948 627572 • Faxa: 948 637508

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

LESAKA

ARANTZA

# Ikasturte akabailan hainbat sari eskuratu dituzte eskolako ikasleek

## DBHko ikasleak Bartzelonan izan dira ikasbidaian

**Garbiñe eta Elixabet**

Dagoeneko akautu dute eskolako haurrek aurtengo ikasturtea. Ortziralean, Senperera egin zuten ateraldia denek, Haur Hezkuntzakoek ezik. Honetaz gain, DBHko ikasleek Bartzelonara egin zuten beraien ikasbidaia.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak antolatutako dialektologiari buruzko lanetan herriko hiru bikotek sariak eskuratu dituzte. 30.000 pezetako lehen saria Imanol Lukanbio eta Xabi Iturriak eskuratu dute, 1936ko Gerra Zibilari buruzko lanarekin. 20.000 pezetako bigarren saria Irune Taberna eta Eneko Ordokirentzat izan da, Berako minei buruzko lanarekin eta 15.000 pezetako hirugarren saria Beñat Mitxelena eta Aintzane Pikabea bikotearentzat, oihaneko lanei buruzko idazlanarengatik. Xabier Aranburuk, berriz, aipamen berezia eta diploma irabazi du.

Erran behar, modu berean, Beñat Mitxelena gazteak Nafarroako Gobernuak antolatutako ipuin lehiaketan saria lortu duela «Kontrabandoa» lanarekin.

ARTEKOKOA

**Udarekin batera, herriko bestetarako prestakuntza lanak akautzen ari dira. Herriko Etxeak dagoeneko prestatuak ditu ekitaldi gehienak eta Gazte Asanblada ere ari da bereak prestatzen.**

### *Herriko bestak*

Udarekin batera herriko bestak hurbiltzen ari dira. Herriko Etxean dagoeneko bestak ia-ia antolatuak ditu eta gazteen eskuetan geldítzen diren lanak egiten hasia da Gazte Asanblada ere. Honela, herri bazkaria astez eginen da seguru aski eta astebururako kontzertua antolatzeko eginahaletan ari da. Erran beharra dago aurten Arantza Rock kontzertua euskal preso politikoei eskaina izanen dela eta Gazte Asanbladaz gain, Bortzirietakoi Amnistiaren Aldeko Batzordeak ere antolaketan parte hartuko duela. Etsaiak eta Parasma taldeak izanen dira herrian bertzeak bertze. Antolaketako bilerak ortzilero arratseko 9,30etan egiten dira.

LABE ZAR
✆ 948631076 • BERA

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

BEINTZAko
OSTATUA
✆ 948 450 014
BEINTZA LABAIEN

616 513 491
PITTI
ESKABAZIOAK

ARTEKARI
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 6etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

MALERREKA

# Mendaur hitzarmena sinatu dute Ituren, Doneztebe, Elgorriaga eta Sunbillako Udalek

## Lau herrietako ur-hornidura lanak diruz lagunduko ditu Nafarroako Gobernuak

tipi-tapa

Mendaur hitzarmena sinatu zuten ekainaren 15an Doneztebeko herriko etxean. Rafael Gurrea Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko kontseilariak eta Miguel San Miguel, Jose Miguel Galarregi, Jose Maria Gorrosterrazu eta Jose Maria Hernandorena, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Sunbillako alkateek. Hitzarmen honen xedea, herri hauetako ur-hornidura lanak egiteko Nafarroako Gobernuak emanen duen ez-ohiko dirulaguntza zehaztea da. Lan hauetan, ur-harrtza, eramatea eta urbiltegia eginen dira, baita fase guzietarako tratamendu planta ere.

Lan hauek ez ziren Hirurteko Azpiegitura Planean sartu, baina Nafarroako Gobernuak garrantzia eman dio lau udalek lan hauek elkarrekin ekiteari. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza 222 milioikoa izanen da, eta ekainaren 19an sinatutako akordioarekin bertze 24,69 milioiko laguntza ere emanen da. NILSAk eginen du proiektua. Toki Administrazio Departamenduak dirulaguntzaren %30a emanen dio NILSAri lanak hastean, urtea akitu baino lehen. Gainerako %70a lanen erdia egiterakoan emanen da.

Jokin IÑIGEZ

**Jose Mari Gorosterrazu, Miguel San Miguel eta Rafael Gurrea Mendaur hitzarmena sinatzen. Eskuinaldean Jose Miguel Galarregi eta Jose Maria Hernandorenak ere sinatu zuten komenioa.**

### *Mourges eta Estazio karriketako lanen inaugurazioa*

Egun berean, Gurrea berak eta Jose Ignacio Palacios Herrilan, Garraio eta Komunikabideko kontseilariak Mourges eta Estazio karriketako ur-hornidura eta saneamendu (ur-beltz eta euritako ura) sareak, zolaberritze, argiteri eta tentsio baxuko kanalizazioen lanak inauguratu zituzten Doneztebeen. Nafarroako Gobernuak 43,46 milioi pezetako dirulaguntza eman du, 15 milioi sareetarako, 19,88 milioi zolaberritze lanetarako, 4,72 milioi argiendako eta 3,79 milioi kanalizazioetarako.

### *Ahozko tradizioa jasotzeko beka deialdia*

Malerrekako Mankomunitateak eskualdeko ahozko tradizioa jasotzeko beka deialdia egiten du. Ikerlanak Malerrekako euskarazko tradizioa bildu beharko du. Lana egiteko epea hamasei hilabetekoa izanen da.

Eskaerak Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan aurkeztuko dira, irailaren 28ko 14:15ak baino lehen. Bekaren kopurua milioi bat pezetakoa izanen da. Deialdia eskuratzeko edo informazio gehiago nahi izanez gero: Malerrekako Euskara Zerbitzuan (948 451746 edo malerreka@animsa.es helbidean.

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

MALERREKA

# Donamaria-Gazteluko komunalen partizioa onartu berri da

## Partikularren eta Udalaren artean nola banatu erabaki da

**ttipi-ttapa**

Donamaria-Gazteluko iralekuak partikularren eta Udalaren artean nola banatuko diren erabakitzeko hitzarmenaren oinarriak onartu ditu Nafarroako Gobernuak, ekainaren 11n onartutako Foru Dekretu baten bitartez. Oinarri hauen arabera, Donamariako Udalak eskriturak eginak dituzten iraleku eta zuhaiztietako lurren %32aren jabetza onartuko die partikularrei. Portzentai hori, gaur egun lurrak duen erabileraren arabera aldatuko da. Orain iraleku gisa erabiltzen segitzen bada, %25 izanen da partikularrarentzat. Gaur egun pagadia, gaztaindia, hariztia, pinudua edo bertze zuhaizti gisara erabiltzen bada, partikularrentzat lurren %35a izanen da.

Zuhaizti eta iralekuen gainerako lur eremuak herrilurrak izanen dira. Donamariako Udalaren esku geldituko dira eta partikularrak ezin izanen du inolako eskubiderik bere gain hartu.

ARGAZKIA: ARTXIBOA

**Sei hilabeteko epea izanen da iraleku eta zuhaiztien komenioa eskatzeko. Ordurako eskatzen ez bada, legez herrilurrak izanen dira.**

### SEI HILABETEKO EPEA KOMENIOA ESKATZEKO

Komenio transakzionala eskatzen duen partikularrak, komenioan sartzen diren iralekuak neurtu eta mugatu behar ditu. Herriko Etxeak izanen du partikularrari dagokion zatia emateko eskubidea. Zati horretan lur-eremu bakarra edo gehiago izaten ahal dira eta komenioan sartuak dauden iraleku edo zuhaiztiak ez izatea ere suertatzen ahal da. Izan ere, Donamariako Udalak zuhaiztiak eta iralekuak herriaren gainaldean elkartu eta gaur egun dauden pagadi gehienak herrilurretan sartu nahi ditu.

Orain, sei hilabeteko epea izanen da komenioa eskatzeko. Ordurako eskatzen ez bada, legez, iraleku eta zuhaizti horiek Udalaren herrilurrak izanen dira eta partikularrek iratzea eta zuhaitzak aprobetxatzeko eskubidea bakarrik izanen dute.

# Jende aunitz Trinitateko bestan

**Iban ISASI**

Eguraldi txarra bazen ere, izan zen Mendaurrera goratu zen jendea. Baselizan meza entzun eta gosaldu ondotik herrira itzuli behar izan zuten, eguraldi txarra dela eta ez baitzen urteroko bazkaria egin ahal izan. Lekuz aldatu zen eta Herriko Etxeko garbaran ospatu zen. 73 lagun elkartu ziren eta Alkaitz, Ainara eta Leire trikitilarien eskutik dantza egiteko aukera izan zen. Arratsean Gaubela taldea izan zen plazan.

### *Lehen jaunartzea*

Ekainaren 3ko Meza Nagusian lehen jaunartzea egin zuten Bidane Otxandorena, Abeni Untxalo, Egoitz Goroterrazu, Mikel Campo eta Tomas Mutubeniak.

### *Filmea uztailean*

Ekainaren 8rako iragarria zegoen «Bai, nahi dut» filma uztaileko astebururen batean eskainiko du Ibintza taldeak, Malerrekako Euskara Zerbitzuarekin batera.

BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Ttnoa: 45 23 74 - IRURITA

ANTOJOS
boutique pre-mama
Zatoz ezagutzera taila handiaren bilduma berria!
(ez da pre-mama)
Arbelaiz Jauregia • Iglesia kalea 8
(Nafarroako Ikibidearekin eskin egiten)

GOIZUETA

# Alduntzingo kanaleko mugaketa eginen du Udalak

## Lurren jabetzari buruzko gorabeherak direlako

Estehan AROTZENA

Malatzaren 25ean egindako bilkuran, Alduntzingo zentral zaharreko kanalaren mugaketa (deslindea) espedienteari hasiera emalea erabaki zuen Udalbatzak. Horretarako ezarritako eguna irailaren 13a da, goizeko 11etan. Hogei egun lehenago arteko epea izanen dute afektatuek beraien eskubideen froga eta defentsarako dauzkaten dokumentuak aurkezteko.

Gauza jakina den bezala, Izaskun Loiarterekin izandako lur trukatzea edo permuta baten ondorioz egin zen herria aipatutako kanalaren jabe. Berehala hasi zituen gainera, bidegorriaren lanak. Gaur egun, obrak aurrera darraiten arren, kanaleak zeharkatzen dituen lur zati batzuen jabeekin ez da akordiorik lortu, eta horrexegatik hartu omen da hasieran esandako erabakia, mugaketa egitearena alegia.

### *Kilikua taldea futbito txapelketako irabazlea*

Kilikua taldea izan da aurtengo herriko futbito txapelketaren irabazlea Urdinolaren aurka ekainaren 9an jokatutako final ikaragarrian lortutako garaipenari esker. Sei ekipok izena eman zuten aurtengo edizioan, Indar-Gorri eta Ardoxomorro izan zirelarik hirugarren eta laugarren postuetan sailkatuak. Unai Mirandak jaso zuen golegile nagusiaren saria. Partidu ederrak ikusi dira eskolako pilotalekuan.

Estehan AROTZENA

**Kilikua taldeak irabazi du futbito txapelketa.**

Estehan AROTZENA

**Ekainaren 10ean eskaini zuen herriko Musika Eskolak ikasturte bukaerako ohiko kontzertua. Eskoletako frontoia gainezka betetzen zuten ikusleak txundituta egon ziren neska-mutikoen emanaldia entzuten.**

ARANO

# Maider Ansa kantari gaztea Euskal Herriko txapeldun

## Bakarkako eta publikoaren saria jaso zituen Hernanin

Kontxi KLABER

Ekainaren 9an, larunbata, Hernaniko polikiroldegian izan genuen Maider Ansa Euskal Herriko Haur Kantari txapelketako finalean. Baita txapela eskuratu ere, bi sari jaso baitzituen, bakarkakoa eta publikoaren saria. Nafarroan ere bera izan dugu txapeldun, bakarka nahiz bikoteka. Ez dator makala ez neska gazte hau.

### *Pala eta eskuzko lehen pilota txapelketa*

Aranoko jai Batzordeak antolatuta, txapelketako lehen partiduak joan zan Larunbatean jokatu ziran. Neskak palaz eta mutilak eskuz eta palaz. Neskek eskuz jokatzeko aukera izan dute baina bikote bakarra apuntatu zan. Partidu hauen finalak Uztailaren 21ean jokatuko dituzte.

**Hainbat urtetan zaborra Oraune-ra bota dugu herritarrok. Udalak txukuntzeko erabakia hartu zuen eta dagoeneko mendia garbitu eta berdinduta jarri dute. Oraingoz horrela uzteko asmoa dago.**

LEITZA

# Gorriztarango pestak igandean

## Euskal Herriko Nortasun Agiria tramitatzen ahal da Udaletxean

**Joseba AZPIROZ**

Gorriztarangoak bere auzoko pesta uztailaren batean ospatuko dute aurten. Honako hau da egitaraua:

Goizeko 9:30etan Meza. 11:00tan Herri Kirolak (Lasterka, harrijasotzen, sokatiran). 14:00etan Auzotarren bazkaria. 17:00etan Mus txapelketa. 19:00etatik 24:00etara dantzarako musika (atsedenaldian txokolatea). 20:30etan XIV. Txintxurrin txapelketa.

### *Euskal Herriko Nortasun Agiria tramitatzen ahal da*

Dakizuenez Leitzako Udalak Euskal Herriko Naziotasun Aitormen Agiria bideratzeko erabakia maiatzaren 19an ospatutako Udal Batzarrean hartu zuen. Horren ondorioz, EHNA Udaletik bideratuko da. Ekainaren 30ean, larunbata, eguerdiko 12etan hasiko dira tramitatzen eta egun horretatik aurrera, bulego orduetan agiria egiteko aukera izanen da. EHNA tramitatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Udaletxean: Euskadiko Kutxan Udalbiltzak duen kontuan 2.000 pezeta ordaindutakoan bertan emanen duten ordainagiria; interesatua Leitzan bizi dela frogatzeko, Udaletxean ateratako Errolda Agiria; hiru argazki (edozein karneta egiteko erabiltzen direnak), adin txikikoak aitormena egiteko ardura legala duen pertsonak lagunduko ditu, beti ere ardura legal horren froga aurkeztuz.

Diario de Navarra

**Ikusmin handia piztu du larunbat honetan bi herritarren egitekoa zen alzkol apostuak. Diego Riaño eta Minttorlako Santi Olanok zortzina enbor kanerdiko moztu behar zituzten eta berrogeita hamarna mila pezeta zuten jokoan. Garai batean ugariak izan baziren ere (zaharrenek Martin Gartziarena eta Rementaneko Miguel Zabaletaren artekoa gogoratzen dute) aspaldian ez zen gisa honetako desafiorik egiten herrian.**

### *Arkiskil eta Errekako ur-hornidura lanak*

Arkiskil eta Erreka auzoetako ur-horniduraren obra enkantera aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Udalak, Gorritz Eraikuntzak enpresari 13.654.464 pezetatan (BEZ barne) esleitzea erabaki zuen.

Beste hiru eskaintza izan ziren: Pagozelay Goizabal SL, 14.018.368 pezeta; Jo arbe SL, 14.027.016 pezeta. eta Construcciones y Excavaciones Fresneda SL, 14.508.206 pezeta.

ARESO

# Eluseder industrialdea ireki zuen Miguel Sanzek ekainaren 19an

## Udala eta eskola Internet-era konektatu dira

**Juana Mari SAIZAR**

Eluseder inguruan dagoen industrialdea handitu egin nahi da. Proiektu honek aurrekontu handia duenez Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea gonbidatu zuten industralde honen inauguraziora. David Garcia apaizak bedeinkatu eta lantoki honetan pertsonek diruak baino garrantzi gehiago izatea eskatu zuen.

### *Udala eta eskola Internet-en*

Aresoko Udala eta eskola Internet-era konektatu dira. Helbideak: aresokoeskola@ibercom.com eta aresokoudala@ibercom.com. Udala, Clavenetera ere konektatu da, herriko kontuetan zuzenean sartzeko.

### *Abiadura mantsotzeko bandak*

Eskola parean dagoen errepidean bi banda jarri dituzte, kotxeak mantsoago pasatzeko eta arriskurik ez izateko. Aparkatzeko debeku seinaleak ere jarri dituzte leku berean.

Diario de Navarra

**Miguel Sanz presidentea eta Joxepa Onsalo alkatesa, Eluseder industrialdearn inaugurazioan.**

### *Sokatira taldea lur gainean*

Sokatira taldeak, lur gaineko denboraldia hasi du lehen aldiz.

BAZTAN

# Elizondoko webgune ofiziala eraikitzen ari dira Internet-en

www.elizondo-baztan.com helbidean bisitatzen ahal da

Rakel GOÑI

Herriko alkate juradoak eskatuta, Alejandro Arizkun elizondarra, herriko webgune ofiziala eraikitzen ari da. www.elizondo-baztan.com helbidean herriaren historia, argazki zaharrak, turismo zerbitzuak, kultur ihardueraк, herriko pertsonaiarik garrantzitsuenak eta hainbertze gauza topatuko ditugu. Lau hizkuntzetan egina dago eta denborarekin elizondarren helbide elektronikoak bildu nahi dira, gida antzeko bat egiteko. Alejandro Arizkun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea gogoz ari da lanean proiektu honetan eta norbaitek lagunduko duen zerbait izanez gero elizondo@ctv.es helbidea posta elektronikoa bidaltzen ahal du

**Webgune berrian Elizondori buruzko informazio ugari aurkitzen ahal da. Bertan, elizondarren posta elektronikoen helbideak bildu nahi dira.**

### Argindarra lur azpitik sartzen ari dira

Iruritako Goienetxeren Dukesa Plazan Iberdrola enpresak obrak hasiko ditu, lur azpitik argiaren kableak pasatzeko. Gauza bera egin dute dagoeneko Arraiozen. Etxe berri baten eraikuntza zela eta, herriko zenbait tokitan argiak indar aunitz galtzen zuen. Hau konpontzerakoan kable berriak lur azpitik pasatzea erabaki da. Herri guztietan honelako obrak egin beharko ziren, etxeak hainbertze itsusten dituzten kableak desagertu eta herrien edertasuna gehiago nabarmentzeko.

### Udal langileen euskalduntze plana

Baztango Udalak, udal langileak alfabetizatu eta euskalduntzeko plana onartu zuen ekainaren 1eko Gobernu Batzordean. Nahi dutenek euskara ikastaroetan parte hartzeko baimena eskatzen ahal dute eta lan orduen barnean egin ahal izanen dira ikastaroak. Bizilagunen %80a euskalduna denez udal zerbitzuak behar den guzietan euskaraz jaso ahal izatea lortu nahi da.

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 580 562 IRURITA

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
✆ 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 • Ameztialde 3B • ELBETE

## FLASH

### Arraiozko irudiak Argentinan nahi dituzte

Juan Antonio Maia arraioztarrak Argentinan Carlos Casares hiria sortu zuen. Orain, bertako kultur erakunde batek Arraiozko alkateari idatzi dio, herria ezagutzeko bertako irudiekin bideo bat bidali dezan. Eskutitzak harridura handia sortu du herrian eta kontent daude Arraiozko seme batek Argentinan hiri bat sortu zuela jakinda.

### Putreendako bazkalekua eginen du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamenduak Baztango Udalari jakinarazi dio epe laburrean putreen bazkaleku berria eginen duela. Ikusita Baztanen putreen kopurua handia dela, Ingurumen Departamenduak egokia ikusten du bailaran animalia hilak botatzeko bertze gune bat egitea. Oraindik bazkalekua eginen den tokia ez da zehaztu, baina gastu guziak Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko ditu. Lur eremu bat itxiko da zakur eta azeriak ez sartzeko eta bide bat moldatuko da, nekazariek modu erraz batean bazkalekuraino animalia hilak eramateko. Desagertzeko arriskuan dauden animalia hauek babestea da helburua. Jakina da Baztango putreen populazioa handia dela eta jadanik Europako bertze herrialdeetara eraman izan dituztela, desagertuak zeuden tokietan birpopulatzeko asmoarekin.

BAZTAN

# Azpilkuetako San Ferminak Uztailaren 6tik 9rat

Igande eguerdian herritarres arteko pilota desafioa jokatuko da

**Ortzileria uztailak 6**

**12etan** Txupinazoa. **21,00etan** Ezkil jotzea. **21,30etan** Afaria "Herri Arte" elkartean, joxe Angelekin.

**Launbeta uztailak 7**

**9etan** Kalejira herrian barna. **11,30etan** Meza San Ferminen omenez. **12,30etan** Hameketakoa "Herri Arte" elkartean. **17,30etan** Txokolate jatea eta jokuak haurrentzat. **20,00etatik 22,00etara** Mindegia Anaiekin kantaldia. **00,30etatik 5etara** Gau Pasa.

**Igendia uztailak 8**

**9etan** Kalejira herrian barna. **11,30etan** Meza Nagusia. **12,30etan** Pilota desafioa. Jose Miguel Azkarraga eta Pello Ariztia, Unai Barazabal eta Aitor Iturralderen aurka. **16,00etan** Bapateko mus txapelketa elkartean. **20,30etatik 22,00etara** Dantzaldia Mindegia Anai-arrebekin. **24,30etan** Dantzaldia Mindegia Anai-arrebekin.

Azpilkuetako gazteak zikiroan orain dela urte batzuk. Ezkerreti eskuinera:

**Astelehena uztailak 9**

**8,30etan** Su piztea. **9,30etan** Gosaria elkartean. **14,00etan** Zikirio herriko frontoian, arratsalde osoan dantzaldia Joxe Angelekin. **22,00etan** afaria frontoian. Ondotik dantzaldia Joxe Angelekin eta besten akabaila.

## FLASH

### *Haurrendako grabatu ikastaroa*

Arizkunenea kultur etxean uztailaren 2tik 14ra, haurrei zuzendutako grabatu ikastaroa burutuko da. Izen ematea lehenbailehen egin behar da Kultur Etxean.

### *Xauli Aisialdi taldekoak Arbonan*

Arbonako ezindu sikiko talde batekin trukaketa egin dute aurten Xauli taldekoek. Gan den urtean honat etorri ziren Iparraldekoak eta Bertiz bisitatu zuten, bertzeak bertze. Aurten, Xaulikoek Arbona ingurua eta elkartearen funtzionamendua ikusi dute.

### *Sendabelar ikastaroa egin dute ikastolan*

Baztan Ikastolan, Kultur Astearen barnean sendabelar ikastaroa egin dute. Guraso, ikasle eta irakasleek hainbat ekitalditan parte hartu eta belarren erabilerak ikasi dituzte.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

Okindegia Jatetxea
Uxoa
☛ Okindegian
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
☛ Jatetxean
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 13 - Tinoa eta Taxa: 948 580804 - ELIZONDO

SENPERE

Maiatzaren 20an 75 urte betetzen dutenen eta senar-emazteen elkarretaratzea izan zen La Nivelle ostatuan.

ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Maiatzaren 27an lehen jaun hartzea iragan zen.

# Animazio andana ortziral honetatik goiti ospatuko diren besten kari

## Gazteek hobeki lan egin dezaten ikasgela berriak eraikitzen dituzte Arretxean

Franck DOLOSOR

Ortziraleko zikiroarekin hasiko dira bestak, bainan harat gaten az direnek untsa afaltzen ahalko dute ere berantago, "atuna" la nivelle ostatuan larunbatean, "paella" arozenan igandean, "aingirak" ebegarai ostatuan astelehenean eta lafiterean asteartean.

Lau egunez, kantaldi, kontzertu eta dantzaldi andana izanen da.

### *Enpresa berria Lizardian*

Duela hilabete batzuk TTIPI-TTAPAK aintzinatu zuen bezala enpresa berria plantatu da Lizardian. Berri ona dudarik gabe herrian lan egin nahi dutenentzat duela 2 urte Yplon hetsi zelarik momentu latza bizi baitzuen herritar andanak. Eurotec-asap instalatu da Yplonek utzi zuen egoitzan. Toki hortan, kirol jantzi marka ezagun batek bere saltegietan baliatzen dituen altzariak eginen dituzte.

### *Elkarteentzat dirulaguntzak*

Herriko Etxeak dirulaguntzak bozkatu berri ditu elkarteentzat. Aurten hiru elkarte daude AEK-korrika, literatuzaleen taldea Hatsa eta Eusko Ikaskuntza. Erakunde hunekin hitzarmena sinatu da kultur ekitaldiak antolatzeko gisan. Jean Fagoaga Eusko Ikaskuntzaren presidentak eta Christine Bessonart andere auzapezak elkarlan hitzarmena sinatu zuten gan den erearoaren 18an. Konferentziak antolatzeaz gain, pentsatzen da oihanetaz, sorginkeriaz ala gure gazteluaz gauza andana jakinaraziko dela hitzarmen huni esker.

### *Dokhelar familiaren lurrak erosiko ditu Herriko Etxeak*

Nahiz eta oposizioko 2 taldeen kritikak izan, herriko etxeak deliberatu du Dokhelar familiaren lurrak erostea. 1.250.000 libera pagatzea erabaki da.

### *Egoitza berria Arretxea ikastetxean*

Arretxea ikastetxean egoitza berria eraikitzen ari dira gan den martxoaz geroz. Saint Christophe lizeoaren ondoan, informatika eta teknologia gela bana izanen da beherean 12 ordenagailurekin internet sarean sartzeko eta lehen estaian 2 ikasgela prestatuko dituzte heldu den buruileko sartzerako. OGEC egiturak pagatuko ditu eraikitze gastuak (1.600.000 libera). 200 metra karratuko egoitza berriarekin 185 ikasleek eta 18 erakasleek hobeki ikasi ahal izanen dute.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 88 ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDAKO ARROPAK
Soinekoetan aukera zabala
Ezteietako arropa egokiak eta konplementoak

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

SARA

# Bai Euskarari akordioarekin bat egin du Herriko Etxeak

## Herriko elkarteek ere euskararen ofizialtasunaren aldeko pausua eman dute

**Aña Mari eta Fred**

Ekainaren 14an Sarako herriak, Herriko Etxe eta herriko elkarteekin batera Bai Euskarari akordioarekin bat egin zuen, euskararen ofizialtasuna eta normalizaziorako bidean pausu garrantzitsua emanez. Goizeko 11etan Sarako herriko etxean egin zen agerraldian, Jean Aniotzbehere auzapeza, Mixel Oronoz Euskal Konfederazioko kidea eta idazlea, Xabier Mendiguren Kontseiluko burua, eta herriko kultur talde edo gizarte eragileen hiru ordezkari, Kattin Bergara AEKko arduraduna, Maripierre Pradere euskaltzalea eta Xan Mixel Garat Turisma bulegoko ordezkaria arduratu ziren kazetari eta entzuleei akordio honen edukinak azaltzeaz.

Akordioa sinatzearekin batera Sarako gizarteak konpromezu garrantzitsua hartu duela argi utzi nahi izan zuten agerraldian parte hartu zutenek.

Ekimen hau aitzinera eramateak gizarte mailan lan haundia eskatzen du, sektore guzietan lan egitea eskatzen baitu nahitanahi ez, helburua lortu nahi bada behinipein.

Egitasmo honetan berebiziko garrantzia dute euskalgintzan orain arte lan egin duten elkarte, erakunde eta gainerakoek, orain artekoa sendotzeaz gain gizartearen lotura bilatu behar dutelako.

ARIEK GOGORTZA

**Mixel Oronoz, Xabier Mendiguren, Jean Aniotzbehere eta Kattin Bergara, Bai Euskarari akordioaren inguruko xehetasunak ematen.**

Mixel Oronoz, Bai Euskarari kanpainaren antolatzailea den Kontseilua erakundeko Euskal Kkonfederazioa elkarteko kide da, eta berak azaldu du normalizaziorako pausu hauek emateko zergatik hartu den eredu bezala Sara eta ez bertze herri bat.

Azkenik, aurkezpenarekin bukatzeko, Kontseiluko arduradun den Xabier Mendigurenek Saran martxan jarri den ekimen honen garrantzia zenbatekoa den azaldu du. Bere hitzetan Saran abiatu den bidea, poliki poliki arrakastaren bidetik joaten bada, bertze herrietara zabalduko da, emaitza bezala euskararekin elkarbizitza normalizatu bat ekarriz.

## Udako haurtzaindegia

### *Larrun Ttiki udako haurtzaindegiak uztailaren 9an idekiko ditu ateak*

«Larrun ttiki» udako haurtzaindegiak bere ateak uztailaren 9tik agorrilaren 31a arte idekiko ditu, urtean ikastolak eta Osasuna elkarteak erabiltzen dituzten lokaletan. Haurtzaindegia astelehenetik ortziralera idekia izanen da, goizeko 7ak eta erdietatik arratsaldeko 6ak eta erdiak arte. Haurrak hiru urtetatik hamabi urte arte hartzen dituzte eta tokian berean bazkaltzeko aukera dute, egun osoz edo erdiz egoteko hautarekin. Prezioa 60 liberetan finkatua da egun osoko baina familia batzuk CAF erakundearen dirulaguntzak eskuratzen ahalko dituzte. Aipatu behar da haurtzaindegia edozein herritako haurrei zabalik dela eta laguntzaile elebidunak izanen direla. Larrun ttiki elkarteko bulegoa lagun hauek osatzen dute: lehendakaria Chantal Lesage, lehendakari ordea Marie Pierre Uhart, diruzaina Frédéric Sinqualbre eta idazkaria Claire Aniotzbehere. Xehetasun gehiagorentzat eta izenak emateko presuna haueri dei dezakezue.

## FLASH

### *Mendi bizikleta ibilaldia*

Joan den erearoaren 10ean, Turismo Bulegoak prestatua II. mendi bizikleta ibilaldia izan zen. Aurtengoan, 89 lagunek parte hartu zuten, horietatik 67ek 35 kilometroko ibilbidea hautatu zuten, gainerakoek ibilbide ttikia. Saratar gutti hurbildu zen ibilbidea egitera, baina auzo herrietatik jende frango, baita umunagotik ere. Bazen bai Bordeletik, Tolosatik eta Landesetatik etortako jendea. Nahiz goiz hartan euria jautsala egin, partaide guziak kontent ibili ziren, baita antolatzaileak ere. Ondoko hitzordua bi urteren buruan finkatu dute.

### *Uztailaren 6an Pottoken jabeen bilera*

Herriko pottoken jabe guziak heldu den uztailaren 6an, ortziralarekin, arratseko 8etan Herriko Etxean egin den bilkurara gonbidatuak dira. Hunen antolatzailea Pottokaren Elkartea izanen da eta arrazaren bilakaera aipatuko da, bertze gai ainitzen artean.

### *Gaztetxeko Biltzar Nagusia*

Joan den ekainaren 16an egin beharra zen Etxola Gaztetxeko biltzar nagusia, uztailaren 4a arte, asteazkena, gibelatua izan da. Ideia eta proposamen guziak ongietorriak izanen dira.

HERRIKO ETXEKO EDARITEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VERONIQUE
SARA • TEL 059542519

AZKAIN

# Larrungo lasterketak Frantziako Kopan balioa izanen du lehen aldiz

Akitaniako atletismo xapelketan bikain aritu dira herriko kirolariak

Hentza, Angela eta Eneko

Aurten, lehen aldikotz, Larrungo lasterketako emaitzek Frantziar kopan balio izanen dute. Orai arte Pirenepetan ez zen lasterketarik antolatzen kopa horrentzat. Hemendik goiti, hiru izanen dira: Uztailaren 29an Ariège eskualdean, Abuztuaren 5an Gavarnie haranean eta azkena beraz Abuztuaren 12an Larrunen. Orotarat 10 kurtsa dira Frantses estatuan kopa hortarako konda direnak. Korrikalari bakotxaren 4 emaitza hoberenak kondutan hartuko dira koparen sailkapena egiteko, jakinik kurtsa bakotxan irabazleak 30 puntu irabazten dituela.

Abuztuaren 12an eginen da Larrungo lasterketa.

Pentsatzekoa da beraz Frantziako lasterkari hoberenetarik batzuek Azkainen parte hartuko dutela. Antolakuntzan ez da aldaketa haundirik izanen, laguntzaile kopurua eta sekuritate normak orain arte ongi beteak zirelako. Aldiz, kurtsaren maila hobetuko dela diote antolatzaileek. 1999an ibilbidea luzatu dutenetik errekor berria 1h 4min 11s-tan da.

### Akitaniako atletismo xapelketa

Atletismo elkarteak Akitaniako xapelketan parte hartu du Pauen Maiatzaren 27an. 38 parte hartzaile (Benjamin, Minime, Cadet eta Junior mailakoak). Taldearen helburua bete dela erran daiteke : denak sailkatu baitziren egun horretarako departamenduko xapelketan. Bertze urtetan ez bezala, haietarik 5 atera dira Frantziako xapelketarako txartelarekin: Lorentxo Larrañaga (100 m) eta Peio Duhalde (jabelina), Peio Arribillaga (luzera eta 400m hesi), Chloé Podras (100m hesi), Laetitia Fernandez (200m). Senior mailan Sébastien Dantras 1500m-tan lehen atera da. Bertze emaitza onak ere erdietsi dituzte. Frantziako xapelketa Ekainaren 30an eta Uztailaren lehenean iraganen da La Roche sur Yon hirian.

### Azkaindarrak Kortsikan

Aurten ere iaz bezala, 3C -Hiru kulturen arteko jaialdian- parte hartu dute Azkaindarrek, Ziburu Euskaldun taldearekin eta beste lagun eta musikari batzuen artean. Hirugarrena da aurten Calvin herrian (Kortsika) maiatzaren 24tik 27ra ospatu dena. Aintzinekoak Ziburun (1999an) eta Coliuren (2000n) ospatu ziren, kortsikar, katalan eta euskal kulturen adierazgarri izan nahizik. Hiru kulturen arteko topaketa ideia interesanta izanik ere, bada zer egina egiazko herri arima jaialdiari emango bazaio, beraz heldu den urtean Ziburuk erronka polita du.

Argazkian, Kristian Borda (Arbonakoa), Paskal Oxandabaratz, Txomin Arizaga, Jeannot Urtxegi eta Maite Larroquet (azkaindarrak) eta Beñat Elizondo (urruñarra), beraiekin Euskal Herrian kontzertuak eman dituen L Arcusi kortsikar taldeko Louis Franshesi.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

# EZKONTZAK

**Marcos Gil Jaurena** eta **Arantzazu Hernandez Barea**, Elizondokoak, ekainaren 2an.

**Jose Maria Organbide Dagerre** eta **Elena Aleman Arriada**, Elizondokoak, ekainaren 2an.

**Jose Antonio Gallego Galindo** eta **Miren Gurutze Leitzagoien Bizkarrondo**, Elizondokoak, ekainaren 2an.

**Francisco Maria Ariztia Danborlena** eta **Edurne Goienetxe Iturburua**, Amaiurkoak, ekainaren 16an.

**Jose Angel Alvarez Azpiroz** eta **Maria Izaskun Alduntzin Baleztena**, Areso eta Leitzakoa, maiatzaren 26an.

**Tomas Biurrarena Uitzi** eta **Rosa Maria Ortiz Caballero**, Leitzakoak, ekainaren 16an.

**Jon Larretxea Lazkano** eta **Noemi de Mateo Alvarez**, Arantza eta Pasai San Pedrokoa, Beran ekainaren 8an.

**Xabier Iturria Arburua** eta **Mireia Martinez Vitoria**, Etxalar eta Berakoa, ekainaren 16an.

# JAIOTZAK

**Maddi Iturria Pombar**, Lesakakoa, apirilaren 30ean.

**Antton Petrirena Apeztegia**, Lesakakoa, maiatzaren 6an.

**Josune Ramirez Romero**, Lesakakoa, maiatzaren 19an.

**Aroa Urteaga Amiano**, Elizondokoa, ekainaren 1ean.

**Asier Barriola Zozaia**, Leitzakoa, ekainaren 3an.

**Aimar Lekuona Lazkano**, Berakoa, ekainaren 10ean.

**Ekain Ariztegi Altxu**, Iturengoa, maiatzaren 21ean.

**Oihan Iribarren**, Sarakoa, ekainaren 5ean.

# HERIOTZAK

**Angeles Martin Caballero**, Berakoa, ekainaren 9an, 90 urte.

**Mª Angeles Goikoetxea Telletxea**, Berakoa, ekainaren 12an, 75 urte.

**Paula Pikabea Iziaga**, Etxalarkoa, ekainaren 18an, 54 urte.

**Luis Mari Maia Ariztegi**, Etxalarkoa, ekainaren 11n, 48 urte.

**Pablo Larretxea Bereau**, Arantzakoa, ekainaren 16an, 86 urte.

**Julien Miranda**, Sarakoa, ekainaren 2an, 81 urte.

**Maria Josefa Paternain Carretero**, Berakoa, ekainaren 16an, 89 urte.

**Jose Mari Arregi Telletxea**, Oieregikoa, ekainaren 18an, 76 urte.

**Sor Agustina Iratzoki Agirre**, Berakoa, ekainaren 18an, 94 urte.

**Jesusa Arretxea Arretxea**, Sunbillakoa, ekainaren 13an, 87 urte.

ESKELA ETA OROIGARRI GEHIAGO 29. ORRIAN

**Luis Mari**
**MAIA ARIZTEGI**

Ekainaren 10ean Etxalarren hil zen, 48 urte zituelarik.

*Gurekin geldituko*
*dira betirako*
*elkarrekin pasatu*
*ditugun lagunarte atseginak.*

ZURE LAGUNMINAK.

**Luis Mari**
**MAIA ARIZTEGI**

Etxalarren hil zen, 2001eko ekainaren 10ean, 48 urte zituelarik.

*Gure gau ilunak*
*argituko dituen izarra.*
*Buruan bueltaka dabilen*
*irriaren oihartzunaren islada*
*zu gure bihotzin beti altxatuko*
*dugun Luis Mari maitia izanen zara.*

FAMILIA.

**Pedrito**
**IRIGOYEN IRAOLA**

II. urteurrena (Bera, 99.07.06)

Seguru urte aunitz pasatuko direla
eta hau bigarrena bertzerik ez dela izanen,
baina urteak kontatzen ahal izteak berak
zurekin ahazten ez garela adierazten du.

**Pepita, Josema eta Patxi**

# Besta zoriontsuak denei

Beti zuekin

NAFARROAKO KUTXA

Zuen kutxa

# AGENDA egunez egun

## KIROLA

### LESAKA

**Ekainaren 30ean** Bortzinetako futbito txapelketaren finala eta hirugarren posturako lehia Irain eskolako pilotalekuan, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Arratsaldeko 5etan Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta goma eta gizonezkoen pala motza txapelketen finalak udal pilotalekuan.

## IKASTAROAK

### BAZTAN

**Uztailaren 2tik 14ra** haurrei zuzendutako grabatu ikastaroa Artzkunenea Kultur Etxean.

## TXAPELKETAK

### DONEZTEBE

**Ekainaren 30ean** Donezteberko II. Trikitixa txapelketa, arratsaldeko 5.30etan Santa Luzia Plazan.

### LESAKA

**Uztailaren 1ean** Baztan-Bidasoa eta Malerreka aldeko IV. Trikitixa txapelketa, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera, Plaza Zaharrean.

## ZINEMA

### ELIZONDO

**Ekainaren 28an** «Misión Imposible».
**Uztailaren 3an** «Stuart Little».
**Uztailaren 5ean** «Auzoko animaliak» (euskaraz)
**Uztailaren 10ean eta 12an** «Asterix y Obelix contra Cesar». Emanaldi guziak Merkatu Plazan, gaueko 10,30etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA

# Lesakako Sanferminak ere TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Udarekin batera, herrietako besten tenorea ailegatu da eta, noski, TTIPI-TTAPA TELEBISTAk ere herriz herriko itzulia eginen du, besta horietako irudirik frexkagarrienak eskaintzeko asmoarekin. Lehenbizi Donezteberko San Pedro bestak izanen dira eta gauero, 9etan, egunean gertatutako ospakizunak agertuko dira zuen pantaila ttikian: Trapatan, ikurraren dantza, betizuak, txarangak...

Ondotik, Lesakako Sanferminak ailegatuko dira. Uztailaren 6ko txupinazotik hasi, San Fermin eguneko Zubigainekoa, peñen jautsiera, haurren eta ezkonduen ospakizunak... Bestetan murgilduriik, zaila izaten da gertakari guziak segitzea, baina horretarako TTIPI-TTAPA TELEBISTA sintonizatzea aski izanen duzue. Gainera, 9etan ikustea posible ez baldin baduzue, biharamoneko goizeko 11etan, eguerdiko 1etan eta arratsaldeko 5etan ikusteko aukera izanen duzue.

Ospakizunetan gelditzen ez direnak jubilatuak dira. Berriki, Lesakako San Fermin Jubilatu elkartekoek Urrezko eta Diamantezko Ezteiak ospatu zituzten. Orain, Arkupe jubilatu elkartearen txanda izanen da. Ortzegun honetan, Urrezteko Ezteiak ospatzen dituzten senar-emazteak eta 85 urte bete dituztenak omenduko ditu Donezteben. Hortan ere, TTIPI-TTAPA TELEBISTAko kamarak hurbil izanen dituzte.

## DISKAK

*«Batzuk»*

### Batzuk

*GAZTELUPEKO HOTSAK*

Eñaut, Patxi eta Joxik osatzen dute Batzuk taldea. Horrela, abizenik gabe, aurkezten dute euren burua diskoaren barneko liburuskan, taldearen izenak ("Batzuk") adierazten duen inpertsonaltasun (ez pertsonalitate falta) berdinez. Horrez gain informazio arras gutti ematen dute euren buruaz, bainantzean pista batzuk aurki daitezke taldearen nondik norakoez. Erraterako, Azkoitiko Matadero-an grabatu zuten iazko abuztuan, eta Akauzazte taldekoen laguntza izan dute lan honetan. Maikel beratarrak eta Joxek nahastu dituzte kantuak. Azkenik, Baxi Ubedarenak dira argazkiak eta Garbiñe Ubedarena maketazioa. Hein handi batean, beraz, Ubedatarren emua da disko hau. Sei kantu biltzen dira disko honetan, gitarra soinu berezi baten errimora josiak.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Ekainaren 8tik 15erako prezioak)

### ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 7.300 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 244 pta/k.

**Zerramak:**
148/153 pta./kiloa, bizirik.

### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 475
**1.koa** 455
**2.koa** 435
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 465
**1.koa** 465
**2.koa** 445

Oharra: Prezioak 200-230 Kg kanalean pisatzenduten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 38.000 eta idixkoak 31.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 42.000 eta idixkoak 40.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555/565
Zaldi-behorrak: 375/385

**Bildotsak:** Pta/k
6-8 kilokoak: 975-1.025
8-10 kilokoak: 850-900

## JAKIN BEHARREKOAK

# Bikote jeloskorrak

**Pertsona aunitzek sentitzen dituzten sentimenduak dira zeloak. Bertze pertsona baten arreta guzia izan nahi eta lortzen ez denean gertatzen da. Orduan agertzen dira sentimendu negatiboak, bertze pertsonarekiko zein norbere burarekiko.**

Zeloak egiazko edo gezurrezko gertakizunetan oinarriturik egon daitezke. Errealitatean oinarritzen badira eta erreakzioa ez bada neurriz kanpokoa zelo hoiek "normalak" dira. Jeloskortasun "patologikoa" bihurtzen da, ordea, ez badago oinarri errealik edo, izanez gero, erreakzioa neurriz kanpokoa baldin bada. Zelo patologikoek obsesio handiak sortu ditzakete eta desbalorizazio, etsaitasun, kulpa sentimendu eta depresioa bezalako gora-behera emozionalak.

### Pertsona jeloskorraren ezaugarriak

· Segurtasunik gabeko pertsonak izan ohi dira, bere buruan konfidantzarik ez dutenak. Konfidantzarik ez izatean pentsatzen du ez dela nahikoa ona bere bikotearentzat.

· Segurtasun falta izan arren, bertzeengan nagusitasuna erakusten saiatzen da, baina hau maskara bat bertzerik ez da.

· Behin eta berriz maltasuna erakartzen saiatzen da eta hala ez bada zaputzu egiten da.

### Arazoa moldatzeko pausuak

· Arazoa onartu eta moldatzen saiatu.

· Norbere buruarengan konfindantza eduki, bertzeekin alderatu gabe. Garen bezala baloratu behar dugu gure burua, gauza onekin eta ez hain onekin.

· Bikotearekin gure zeloez solastu behar dugu modu objetiboan, egiazko arrazorik dagoen jakiteko.

· Onartu behar dugu ezin dugula bertze pertsonaren jabe izan, jabetza objetuen kontua balta, ez pertsonena.

· Konturatu behar dugu bertze pertsona hori gurekin baldin badago gustora dagoelako dela, beraz, zergatik sortu mamuak gure buruan?

RAKEL AMIGO

## LIBURUAK

*Sugearen Tristura*
**Jesus Etxezarraga**
*PAMIELA*

Produkzio urri eta oraindik argitaratze uzkurragoa duen Jesus Antonio Etxezarraga Zuloaga bilbotarrak (kazetaria, olerkigilea) azken urte hauetan idatzi dituen kontakizun laburrak mehaztuz eginiko bilduma bat da *Sugearen tristura* izeneko liburu hau. Batzuk, han-hor lehenago publikatuak, eta beste batzuk berriz, lehen aldiz honetarako bilduak. Idazlearen lagunen erreguek eskaturik, emozioaren lekukotzat joten ei diren esaldi konprenigaitzez izkiriaturiko sablea maginatik atera du samurai zaharrak. Sablearen legendaren aitzakian, bakoitza bere koplarekin, han biltzen zaizkio basamortuko urre trukatzaileak, erregina beltzak, aleman galduak, gailego sierpezaleak, zigor luzeko presoak, gudari hilen itzalak, ahateak, zakurrak, zaldiak, erromatarren legioen entseinak, edo erbesteko melkitak. Gauzak idatzita dagoenez, kontatuak izateko gertatzen baitira.



# AGENDA egunez egun

### BESTAK

**LESAKA**
**Uztailaren 6tik 10era** Sanfermin bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**AZPILKUETA**
**Uztailaren 6tik 9ra** Sanfermin bestak. Xehetasunak 18. orrialdean.

**SENPERE**
**Ekainaren 29tik uztailaren 2ra** bestak. Xehetasunak 21. orrialdean

**LEITZA**
**Uztailaren 1ean** Gorriztaran auzoko pestak. Xehetasunak 18. orrialdean.

**DONEZTEBE**
**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.**

**ERRATZU**
**Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.**

### EH ZUZENEAN

**ARROSA**
**Uztailaren 1ean** Euskal Herria Zuzenean festibala. Euskal Herriko irratien topagunea ere eginen da.

### GUARDIAKO BOTIKAK

**Ekainaren 25etik uztailaren 1era**
Igantzi, Narbarte, Elizondo (Iturraide), Leitza eta Goizueta.

**Uztailaren 2tik 8ra**
Arantza, Donezteb e, Irurita eta Goizueta.

**Uztailaren 9tik 15era**
Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta

# MERKATU TTIKIA

**ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA**

**00-34 948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin) 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan [illegible] justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

[illegible]


**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak


## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdietan eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m²ko pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 630 943.

**BERA.** Pisua salgai Agerra auzoan. Mobleztatua. ☎ 652 715 050.

**BERA.** Pisua salgai Legia karrikako 53. zenbakian. ☎ 696 753 366.

**DONEZTEBE.** Pisua garajearekin salgai Elizagibela auzoan. ☎ 600 902 740.


**ADOS**

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

✆ 948 451 841
607 978 656



**Tele inmobiliaria**

Eskaera handiagatik bordak, baserriak, etxeak, pisuak eta lur-eremuak behar dira.

✆ 948 630 601


**ERRATZU.** 100 m²ko pisua salgai. Mobleztatua, 3 logela, sukaldea, egongela, bainua eta trasteroa. 11 milioi pta. ☎ 649 932 297.

**BEINTZA-LABAIEN.** Baserria salgai bere lurrekin. Etxeak 2 solairu ditu (130 m² bakoitzak). ☎ 948 450 039.

**ERRATZU.** Pisu ederra salgai. Mobleztatua, trastero eder batekin eta bista paregabeak. ☎ 629 322 998 (arratsaldeetan).

## ETXEBIZITZAK

### 104 Errentan hartu

**BERA.** Pisua errentan hartu beharrean nago. ☎ 948 625 000 (Gerardo).

## ETXEBIZITZAK

### 105 Etxe konpartituak

**LEITZA.** Leitza inguruan uztaila eta abuztuan baserri batean biziko nintzateke. Baserriko bizia ezagutu, lanean lagundu eta euskara aberasteko. ☎ 948 268 014.

**BURLATA.** Neska bat behar da pisua osatzeko. ☎ 948 450 578 edo 679 877 229.

## GARAJEAK

### 109 Errentan eman

**BERA.** Arraindegia traspasatzen da. ☎ 948 631 124.

## GARAJEAK

### 107 Saldu

**DONEZTEBE.** Aparanen 75 m²ko nabe pabiloia salgai, 55 m²ko bigarren plantarekin. ☎ 948 450 906.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 Saldu

**SUNBILLA.** Hiruerreketa inguruan lur-eremua salgai, herritik hurbil. ☎ 948 599 135.


WEB ORRIALDE [illegible] EGITEN DIRA

Eskatu aurrekontu [illegible] foturarik gabe

☎ 607 84 10 [illegible]



LODITASUN[illegible]

EDAN ETA ARIN[illegible]

Zure pisua [illegible] gazteko jendi [illegible]

☎ 948 13 11 [illegible]


## LANA

### 301 Eskariak

**Neska** eskaintzen da [illegible] teko. Makina industrial[illegible] josten badakit. ☎ 948 [illegible] 562.


Alicia T. Erb[illegible]

BEHAR OITUZ[illegible]

LAN TO[illegible]

HORIZONTAL

OFIZIALE GUZTIA

SERVI - LAN.

Elizagibela, 5 - DONEZTEBE

Tel. 948486192 - Fax. [illegible]



**ADOS**

**SUNBILLA:**

**14 etxe elkar atxikiak**

**14 etxebizitza modalitate librean**

106 m² + 50 m² garaje + lur zatia = 23.900.000 Pta.

Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656


**Josetxo TAINTA PIKABEA**

Lehen urteurrena
2001 - 07 - 09

*Gure hogeigarren urtea dugun honetan, lehendabiziko aldiz faltatuko zara.*

*Gogoan zaitugu.*

KILKERRAK.

...-hondakinak eta txa-...itzen ditut. ☎ 948 630 ...(Lan).

...kumea eskaintzen da ...koak eta haurrak zain-...ko, etxeko lanak egin edo ...ko lanetarako. ☎ 699 ...216 (Joxe Irigoien) arra-...eko 8ak arte.

...ka euskaldun batek os-...an lan eginen luke edo-...rriko bestetan. ☎ 943 ...518 (Maider).

...n Malerrekan lan egin ...ko nuke, umeak zain-...n, etxeak garbitzen edo ...ren batean. ☎ 948 615 ...

...ka gazte batek lan egi-...n luke haurrak zaintzen ...klase partikularrak ema-ten. ☎ 948 631 037 - 669 336 188 (arratsaldeetan).

Uztaila eta abuztuan **klase partikularrak** emanen nituzke Beran. ☎ 948 631 499.

## LANA

### 302 Eskaintzak

Esperientziarik gabeko **elektrizista** behar da hozkailuekin lan egiteko. ☎ 639 103 305 (Indarri Instalazioak).

Etxalarko jatetxe batean **zerbitzaria** be har da lehenbailehen. ☎ 948 635 290.

**Administratiboen lan poltsa** osatzeko deialdia zabaldu du Nafarroako Gobernuak. Froga bat egindo da. Betekizunak: eskola graduatua, LH1 edo parekoa. Zonalde euskaldunerako EGA aurkeztu beharko da edo bertzela maila froga bat egin beharko da. Epea: 2001-07-04. Eskariak Nafarroako Gobernuko erregistroan egin behar dira, Carlos III 2.zkia, Iruñea. Informazio gehiago: BITARTE (619 829 289 Betisa) edo NAO 71 (01/06/11).

Esperientziadun **makinista** behar da retroarekin aritzeko. ☎ 629 219 068.

Frantses pixka bat dakien **neska** behar da uztaila eta abuztuan lan egiteko. ☎ 948 630 794.

Donostiako moto tailerrean lan egiteko **mekanikoa** behar da. Esperientzia kontuan hartuko da. ☎ 943 280 457 (Iñaki).

Denboraldi berrirako **ostatuko zerbitzaria** behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 948 450 028.

## MOTORRAK

### 501 Salerosketak

**Nissan Patrol** NA-S salgai, motza. ☎ 948 514 145.

**Volkswagen Passat** salgai. ☎ 948 630 858.

**Furgoneta isotermoa** salgai. Ekonomikoa. ☎ 948 631 124.

**Fiat Tempra** 1.9 TD salgai, NA-AK. ☎ 948 637 235.

**Kawasaki KX** 250 salgai. Egoera onean. ☎ 652 754480.

## MOTORRA

### 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Ssangyong Muso TDI 5 ate, Vectra TD, R19, Free Lander, R Expres, C15, Clio D.
SUZUKIAK ETA VITARAK ALKERAN

## ANIMALIAK

### 601 Emateko

Hilabete bateko **artzain txakurkumeak** oparitzen dira. ☎ 948 387 009.

Semper
Semper autoeskolak
egoitza berritua
eskaintzen dizu
erosotasun handiagoarekin
eta baliabide berriekin
Eztegara, 26
31780 BERA
Tfnoa.: 948 630 298

# ttipi-ttapa

## urtebetetzeak

Argazki bakoitzarekin batera 40 Ptako 13 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira ttipi-ttapa telebistan eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobre bat ata helbidea ere bidali.

**Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.**

**Iraki Fernandez** lesakarrak ekainaren 24an urtea beteko du. Zorionak atautxi, amatxi, izebak eta osabaren partetik.

**Iraki Fernandez** lesakarrak ekainaren 24an urtea beteko du. Zorionak familiaren partetik eta muxu bat Nagoreren partetik.

**Iratze Mikelarena Bengotxea** beratarrak 3 urte beteko ditu uztailaren 6an. Zorionak eta muxu bat Maialen, aita eta ama.

**Mª Angeles Mitxelena Labaga** igantziarrak ekainaren 25ean 59 urte beteko ditu. Zorionak ama eta alabaren partetik.

**Xabier Agustino Jaunesi** irurtzundarrak 2 urte beteko ditu ekainaren 18an. Zorionak aita, ama eta Etxumako familiaren partez.

**Endika eta Oihana Lanaldo Olazar** elgorriagarrak 5 eta urte bat bete dituzte ekainaren 19 eta apirilaren 2an. Zorionak familiaren partetik.

**Aitziber** eta **Idoia Irazoki Bengoetxea** ekainaren 30ean eta uztailaren 5ean beteko dituzte 2 eta 4 urte. Zorionak aita eta amaren partetik.

**Kemen Maulegon Salazar** irundarrak uztailaren 10ean 21 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.

**Mikel Zozaia Urbieta** urte beteko du ekainaren 24an. Zorionak eta muxuak Andoni eta familiaren partetik.

**Iratxe Espakza Chuscai** 9 urte bete ditu ekainaren 20an. Zorionak Eneko, Fermina, Luzio, Maribi eta gurasoen partetik.

**Xabier Madariaga Ibibarren** urrotzarrak 11 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak familiaren partetik.

**Aritz Madariaga Ibibarren** urrotzarrak 13 urte beteko ditu uztailaren 2an. Zorionak familiaren partetik.

**Errebiriako Aitatxiri** Zorionak bere 80. urtebetetzean semealabatik, haur tiki eta ondokoen partez. 30ean egun ona izan.

**Xerafi Bergara** lesakarrak urteak beteko ditu uztailaren 7an. Zorionak laguren eta senarraren partez!!

**Iratxe Gamio Etulain** arizkarrak 6 urte bete ditu ekainaren 20an. Zorionak eta sei muxu zure familiaren partetik. Ongi pasa.

**Jon Ander Bengotxea Azkarraga** urdazubiarrak uztailaren 10ean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik eta segi horren bihurri.

**Juan Bengotxea Ibarrola** urdazubiarrak uztailaren 26an beteko ditu 41 urte. Zorionak bere emazte eta semearen partetik. Musuak.

**Iratz Udaeta Zubieta** beratarrak 5 urte bete ditu ekainaren 24an. Aunitz urtez gure sorgintxo jenio biziarri! Etxekoak.

**Carlos Pacheco** beratarrak uztailaren 1an urtek beteko ditu. Zorionak aitatxi!

**Andoni Taberna** arantzatarrak ekainaren 29an 2 urte beteko ditu. Zorionak aita, ama, Xabier amatxi eta familiaren partetik.

**Oier Iantzi Ordoki** lesakarrak 12 urte bete ditu ekainaren 19an. Zorionak eta besarka handia aita eta amaren partetik. Aupa Beti Gazte!

**Olaia Iantzi Ordoki** lesakarrak 8 urte beteko ditu ekainaren 30ean. Zorionak eta besarka handia aita eta amaren partetik, trikitilari!

**Naiara Apeztegia** 10 urte bete ditu ekainaren 25ean. Zorionak Javier, aita-ama, amatxi, Begoña, Pakita eta Mari Nieveen partetik.

**Eugenia Labaga Zalbidarena** igantziarrak ekainaren 15an beteko ditu 89 urte. Zorionak bere bikoiza Ainararen partetik.

**Anttoni Apeztegia** lesakarrak urteak beteko ditu ekainaren 23an. Zorionak senarra eta Bera eta Oreretako familiaren partetik.

**Beñat Garaiar Arai** uztailaren 5ean 7 urte beteko ditu. Muxu handi bat familiaren partetik.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

Bi urteko **ahari mutur gorria** salgai. ☎ 948 451 696 (goizeko 9etatik 9,30etara).

Basurde ehiziko hiru urteko **zakur arra** salgai. ☎ 948 387 098 edo 608 202 095.

Cocker Spanier ingeles **zakurkumeak** salgai, beltzak eta gorriak. ☎ 948 637 519 - 677 594892.

## DENETARIK

### 701 Galdu-aurkituak

Lesakan, zilar koloreko **erloju** galdu da Mastegi futbol zelai berriaren inguruan, malatzaren erdian. ☎ 948 637 867 (Lidia).

**Ardi-zakur handia** aurkitu dugu Izun. Ile luzeduna, beltria, gaztea. Koadrodun koilarrarekin. ☎ 948 393 131.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Egurrezko sukaldea** salgai, gutti erabilia. ☎ 948 635 267 (arratsaldez).

**Atabala** salgai. ☎ 948 630 167.

300 litroko aluminiozko **gasoil-depositoa** salgai, motorearekin. ☎ 619 913 375.

## HARREMANAK

### 801 Agurrak

**Iruritako** Juana Mari Bidegaineri, ekainaren 7an 25 urte lanean bete dituelako, zorionak eta aunitz urtez! Segi horren umoretsu eta trebea. Aupa "Vieji"! Zure lankideak.

J.M. Goñi **oiztarrari** zorionak familiaren partetik eta bereziki Manuel eta Andrearen partetik. Sanpedroetarako gonbidapena espero dugu.

**Arantzako Etxerreako** Juaniri zorionak familia guziaren partetik eta bereziki Manuel eta Andrearen partetik.


**NORBAIT ZORIONTZEKO,**

**BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 40 PEZETAKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:**

ttipi ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA (Nafarroa)

# manelsa s.l.

## elektrizitate industriala

**Instalazioak eta muntaia elektrikoak**

**Mantenimendua**

**Automatismoak**

**Iluminazioa**

Amaiur, 2 behea
Sakeleko telefonoa: 686 466 865
**31700 ELIZONDO**

Artekale, 22 behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakeleko Telefonoa: 686 466 866
**31195 BERRIOZAR (Nafarroa)**

# LESAKAKO UDALAK

Besta zoriontsuak
opa dizkizue
lesakar eta bisitari guziei

2001eko San Ferminak